


# anaitasuna

1978.EKO URRIAREN 1EKOA 369. ZENBAKIA 50 PZT.

13



euskal herriari,  
informazioa  
euskaraz.

# HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezki banketxea



**BANCO DE BILBAO**

**gizaldiz gizaldi aurreratzen**

# anaitasuna

## KOORDINAKETA

J.R. Etxebarria

## ERREDAKZIOA

T. Trifol, J. Llerandi

## ERREDAKZIO KONTSEILUA

J. Agirreazkoenaga, J. Aurre, J. R. Etxebarria, X. Kintana, E. Knör, J. Idigoras, J. Iturbe, J. Llerandi, E. Martin, T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta.

## A R A B A

Enrike Knör.

## BIZKAIA

J. Llerandi .

## GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal.

## IPARRALDEA

M. Lanatua

## NAFARROA

I. Zabaleta

## IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño,

J.M. Torrealday, M. Alvarez, A. Eguzkitza, P. Agirrebaltzategi, I. Azkoaga,

J.L. Alvarez (Txillardegia)

A. Loroño, J. Mendizabal,

J. Azurmendi, B. Atxaga,

M. Haranburu, M. Lasa, R.

Ordorika, E. Entziondo,

S. Lafitte, M. Pagola, K.

Anakabe, J. Sarrionandia,

J.J. Bakedano, Natxo de Felipe,

A. Eskisabel, F. Alafia,

J. Etxebarri.

## MAKETAPENA

E. Zumalabe, J. Etxebarri.

## KOMIKS

A. Olariaga, I. Lauzirika.

## PUBLIZITATEA ETA HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

## IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Zabalbide 68- Bilbo. Tf:4335808

MOLDIZTEGIA : Iparragirre S.A.

Carretera de Galdacano s/n.

BILBO.

# AURKIDEA

4. Editoriala.
5. Artzainak eta tratulariak, nolako burruka halako arazoa. (Iparraldeko egoeraz)
7. Salakuntza bortitz bat. (E.K.N. eta euskara.)
8. Alderdi Eguna. (Zenbait gogoeta eta pasadizo.)
10. Otoi denok ez. (Oraingo konstituzioa 1839-ko legea bezala, 1876 eta 1937 koak bezala, inperialismo soilaren bortxaketa da.)
12. Hizkuntz kolonizapena. (Goiherriko euskal eskolen agiria.)
14. Injinadoreak eta Euskal Herria. ("El ingeniero hoy" delako liburuaz azterketa interesgarria : 50% euskal burujabegoaren alde agertzen dira.)

---

16. Ohar laburrak.

---

18. Sozialismo iraultzailea. Bizitzaren ikuspegi alai eta hiltzailea. (Mundua erdibiturik dago bi bloketan bereziki. Nikaragua, Iran eta Libano, erdibitze horren ondorioak jasaten ari dira.)
21. Federico Krutwig-ekin hizketan.
26. Emakumeen zinema Donostian. (Ekialdeko zenbait artistekin egindako elkarrizketa honetan hango emakumeen arazoak azaltzen dizkigute.)
28. Errepresioa Estatu demokratikoetan.
31. Bertso berriak konstituzioari jarriak.
32. Euskal Herritik Georgiara Moskun zehar.
34. Kaiku nagusi.
36. Gramatika.
39. Kritikak eta deskritikak aise ari.

# editoriala

## NON DAGO GILTZA?



Bukatu berri dira Senatuan Konstituzioari buruzko eztabaidak.

Autodeterminazio eskubiderik eta gure Herriaren eskubide historikorik onartzen ez dituen konstituzioa, erreferendum bidez onartua izanen da urtea bukatu orduko. Eta maioritariak Euskal Herriari so ari zaie. Laster hasiko zaizkigu BAIETZ esateko kanpainak. Estatuko alde guztietatik pertsonaiak eta alderdiak, gure herriak, euskararen herriak ez dituen onartzen berberoiek, frontoiak, teatroak, paraninfoak eta ab. alokatuko dituzte. Alde batetik, Carrillo eta La Pasionaria, Felipe Gonzalez, Guerra eta Mujica Herzog, bestetik, beste neurri apal batetan, UCDkoak izanen ditugu lagun eta euskaldun.

Telebista ahalguztidunak parte hartuko du eta Mujicaren "euskaldun" horiek bat batean, BAIETZ arduragabekoa, asteburu bateko baietz trankila, esanen diote konstituzioari. Demokraziaren neurriak ezagutu ez zituenak ezagut ditzan noski.

Honek guzti honek, oso normala ez balitz, harritzeko eta oihukatzeko gogoak emanen lizkiguke, baina ez da gure ustez oihukatzeko mementu bat, ez guttiago, euskaraz berbera egiteko unea, euskal oihuek ez baitute ia inon ere oihartzunik. Has gaitezen beraz, gure apaltasun honetatik finkaturik, begiradak jaurtikitzen belarri entzun-minduen aldera. Ez gara ba, Patriaren batasunaren kontra sartuko honetan. Berdin zaie haiei, berdin guri ere, ez baita inor konbentzitu behar ez han ez bertan ere ez. Baina abertzale-multzoan ba du zer esanik oraindik Anaitasunako editoriale honek.

Eta aipagarria bada, gure eskubide foralen alde EAJk egindako defentsa, aipagarria da ere, EAJren politikariek, agian pragmatismo eta posibilismo politikoa ikuspegi berezi batek bultzatuta, Euskal Herriaren eta Estatuko beste herrien autodeterminazio eskubidearen kontra agertu direla jakitea. Jakingarria zentzu berean, Espainol Estatuaren batasun zatiezinezkoa baieztan duen konstituzioaren 2. artikulua alde botua eman duela gogoratzea. Gogora datorkigu, bere alderdiaren izenean, Arana Goirik USAko lehendakariari bidalitako telegrama,

Kubaren independentziagatik zorionak emanez eta herrien independentziarako eskubidea defendatuz. Ondorengoek ez dute modu berean jokatu. Arrazoiak ugari eduki ditzateke. Ez dugu guk zalantza-tan ipintzen.

Bildur gara, hala ere, abertzaleen alderdi maioritari horrek konstituzioari buruz hartu behar duen jarreraren aurrean eta ez BAIETZ esanen duelako baizik eta abstentzioaren alde jokatzenean, bi modu ez berdinak daudelako. Aktiboa eta pasiboa. Bigarrena hartuz gero, baietz politiko bat hautatzen delako, bere hastapenak ukatuz.

Azkenengo hau izan daiteke konpromezu guztien giltza, EAJ lasai edukitzean, besteak, PSOE eta PCK bereziki, euskalduntasunaren izenean uzta bil dezakete.

Orain egun gutti, EPK (PC)k, foruen emendapena zegoen bezala aurrera joango ez balitz, beraik ere, kontra edo behintzat beren jarrera berkontsideratzen hasiko zirela esaten hasi zitzaigun. Ez da zaila horrelako jarrera gogor bat hartzeko arrazoia non zegoen jakitea. Konbentziturik egon dira mementuz, EAJren ezetzaz. Geroz, joku politikoa aurrera segitzean eta horretarako posibilitaterik asko ez zegoela konturatu direnean, bere betiko asmoak garbi azaldu dizkigute. Giltza beraz, EAJn eduki dute.

Mujica Hertzogen hitzoi kasu eginez, Euzkadik autodeterminatu du bere burua azkenengo hauteskundeetan, eta berriro ere hemendik guttira egingen du konstituzioarekin. Nazioarteko edozein tribunal juridikoak ez luke Mujicaren demagogia merke hori onartuko. Herriak autodetermina daitezen prozedura bat dagoela jakin beharko luke jaun horrek, berau faltaz gero beste guztia gezurrezko komedia odolgarria besterik ez da.

Erreforma bere fruitua eman du. Konstituzioa eginik dago. Autodeterminaziorako eskubidea ez da onartu izan eta independentismoa antikonstituzionala izanen da. Estatuko indar maioritariak eta erdirakoiek Euskal Herriaren arazoei konbentziturik emateko aukera egokia zapuztu dute. Baina ez gaitezen katastrofistak izan, agian denetarako soluziobidea, Euskararen herriarena bereziki, PSOEn egonen da.

# ARTZAINAK ETA TRATULARIAK, NOLAKO BORROKA, HALAKO ARAZOA



Hauen eskuetan dago gure etorkizuna.

Artzaingoa izan da Euskal Herriaren ogibide zabalduenetarik bat. Ikertze berri batzuk agertzen digute oso berant arte (18garren gizaldirarte) erabili dugula Iparraldean. Hamabigarren gizaldirarte, esan daiteke, artzaingoa nagusi izan dela nekazaritzari. Zoritxarrez, 12garren gizalditik aurrera Konpostelako beilaritza zegoelako, fraideetxeen bitartez nekazaritza sartu zitzaigun gure mendietara. Gaurkoan, nekazaritza guziz zabaldua dugu eta artzaigoaren premiatasuna azken mailara jaitsi da (edo hobekiago esateko: azken maila baino beherago). Errazki pentsa dezakegu, borrokabideak ugari ukan dituztela artzain eta nekazariak. Hain zuzen, XX gizaldi honetan, ez zaizkigu oraindik amaitu. Uda oroz, nekazarien eta artzainen eztabaida bizi

bizia jarraitzen da. Esan gabe doa, bertako politikari "izen handikoeak" atsegin hartzen dutela, ikusiz zapalduak elkarren artean eta elkarri joka ari. Hori bai nahi dutela gure jaunttoek (Inchauspé etab.), hori bai bilatzen dutela.

Dena dela, eztabaidak jarraitzen baldin badu, nabari da arrazoiak ere ba direla. Orogen artetik, arrazoin hau da mintsuena eta minberagarriena: mendia ez dakigula norena den. Nekazariak dio nekazariarena dela, artzainak artzainarena eta hirikoak hiritarrena. Baina ez dugu ahantzi behar "interesatuetan" interesatuenak ditugula espekulazioa daramaten jaun gorbata-dun asko, Euskadiren mendietaz jabetu nahi duen dirudun asko. Hauk ditugu benetako arranoak, egiazko



etsaiak. Arren, nola ezkondu interes desberdin horik guziak? Edo, horrelako ezkontza baten asmatzea bera zilegi al zaigu? Bistan da ezetz! Otsoa eta ardia ezin ditzakegu elkar, batipat arriskugarri delako: otsoak beti, faltarik gabe, ardia janen duelako. Hots, Euskadiren etsaiak beti berak dira, ardi larruz jantzitako otsoak.

Gaurregun norekiko borroka nabaritzen zaigu? Zoritxarrez ez otsoen aurkakoa baina ardiak zaizkigu elkarren aurka ari. Ez daiteke esan borroka hau debaldekoa denik, ezen beti eta argi-ago sumatzen baitira nekazari ttipi handien arteko interes desberdinak. Berdin gertatzen da artzain eta nekazarien arteko desberdintasunetan. Nekazariak, klase ezberdinetara igaten ari zaizkigu: beti eta *gehiago* lur beretzen duena baita beti lur *gutiago* duena. Batek beti biltzen du eta besteak beti galtzen. Udan, nekazarien etsaiak hark artzainen etsai bilakatzen dira.

#### Udan noren aberenak mendian?

Udabetean artzaina mendian dago, ardimozte, elkarlan eta elkartasun paradak ugari ditu. Hots, bere lasaia-roa hilabete horietan topatzen da. Ez pentsa alferrik dagoela, artaldearen eginbeharrak betez edo konplutuz daramatza eta hain zuzen zelaietako nekazarien abereekin zaizkio arazoak agertzen. Lehenago abere gutiago zebilen mendian baina artzain asko, alderantziz, gaur abere asko dago eta artzain guti. Iparraldeko emigrazioa

delako, artzaingoaren baitan nekazaritzaren mesprezua, gazteak joan dira eta gazteekin gazteen lan indarra. Nekazaritzak ez dauka gehiago behar beharrezko dituzkeen gazteen eskuak, hauen sostegua eta bultza. Fenomeno ekonomiko eta politiko hau dela, nekazariak abereak mendira bidaltzen dituzte baina zaintzalerik gabe. Ehunaka eta milaka ardi, zaldi, behi, oro artzainaren bizkar doaz. Lasaiatu nahi eta ezin, bere artaldearen lana ongi egin nahi eta ezin, artzaina haserraten zai-



Intchaspé.

gu. Gainera esan daiteke artzaina eta nekazaria biak mendian bizi direla baina hor dabil ere beste gizon kategoriatan. Kategoria hau inongoa ez da non ez den diruaren aberrikoa: tratulari handi, abere erosle eta espekulatzailerik moeta guziak. Esan gabe doa, Inchauspéren bedeinkapenarekin eta nekazaritzako frantses ministeritzarekin dabiltzala gure mendien lapurtzen baita artzainen suntsitzen. Dena dela, tratularien kategoria honek, Bordeleko, Landesetako edo nonbaiteko pertsona aberatsen zaldia bere gain hartzen ditu... Diruaren truk, zainduko eta artatuko dituela. Baina udan zer da pasatzen? Kanpokoen abere hark mendira dituzte bidaltzen. Horrela zaigu bertako abereen eta kanpokoen artean izugarriko konpetizioa sortzen. Arren, artzainen interesak, bertako nekazariaren ala kanpoko dirudunenak? Inchauspé diputatua Garaziko mendiaz arduratzen den egituraren lehendakari denez gero, tratulariak ditu faboratzen. Begiak hixten, ezer ez egiten, ezer ez esaten, legezko gaztigurik ez ematen, hots, itsuelkorren politika daramagu, oportunistoarena eta diruarena.

Honelako politikariekin zaigu Iparralde heriotzaren zulo beltzera sartzen. Horrelako gizonekin gara hil-bizi bilakatzen. Noiz arte?

Artzainak, apur bat bihurtu zaizkio (Baionako manifestaldia, etab...) nekazari gazte zenbait ere bai, baina Inchauspé jaunak dirua berarekin dauka. Eta nork uka lezake diruaren indarra izugarria dela, batipat jende alienatuetan. Gainera itxaropen ekonomikorik ez daukanean diruzko laguntza estimagarri zaio Iparraldeko gizon euskal kontzientzia gabeari.

#### Abertzaleen eginbeharra: bai iraultzari

Euskadi batua borrokaren bidez euginen baina eginbehar dugu ere, gaurdanik, gure mentalitatean, gure hitzetan, eguneroko jarreran, gure ekintzetan. Iparraldeko artzaingoa arbaso zaharren hezurretan murgiltzen zaigulako guziari doa artzainen laguntzea eta borroka hortan zehar gure lurraren, geure gordetzea. Arazoaren mamia hori baita: Euskadi norena da, euskaldunona ala kanpotarrena? Euskadiren lurra kapitalistena edo bertako artzain eta nekazariena? Benetan, Euskadi ez badugu askatzen, batzen eta euskal sozialismoan sustraitzen deus ez dugu eginen. Herriaren bizia-erentzat Euskadik dio BAI IRAULTZARI, BAI IPARRALDEARI, BAI EUSKAL KONTZIENTZIARI.

M. L. Uhaizte

# SALAKUNTZA BORTITZ BAT

*Katalunian 1978-79 ikasturtean katalan hizkuntza heziketaren maila eta ikastetxe guztietan derrigorrezkoa bezala sartu dute, Dekretu-Lege baten arabera. Katalanek beren hizkuntzarako atxikimendu berezi eta txalogarri bat betidanik agertu dute eta horren fruitua da katalan hizkuntzak duen hedadura eta indarra.*

*Eta Euskal Herrian, zer? Non dago euskararen aldeko Dekretu-Lege hori?*

*Euskal Historia aztertzen badugu, gauza bitxi eta lotsagarri batetaz konturatzen gara: herriak euskara gorde badu, agintariak mespreziatu egin dutela. Eta hori betidanik, katalanen alderantziz.*

*Gernikako Juntetxean gordetzen diren dokumentu guztiak, bat izan ezik, erdaraz idatzirik daude. Dokumentu haien garaian, euskara zen Bizkaian nagusi.*

*Nagusiak 1978ko irailaren 18an egindako bileran Dekretu-Lege honen proposamendua aztertzen HASI DA "eta hurrengo bileretan lan hau jarraitu egingo du". Eta bilerak astero egiten direnez, zerbaitengatik atzeratzen ez badira (irailaren 25ekoarekin gertatu den bezala), Gabonak helduko zaizkigu eta zorioneko proposamen hori aztertu gabe egongo da oraindik.*

*Baina euskarari LEHENTASUN ERRADIKALA eman behar zaio. Astero ez baina Euskal Kontseilu Nagusia EGUNERO bildu behar litzateke gai hau erabakitzeko. Ala beste ikasturte bat galdu behar ote dugu? Zeren honelako martxan, 1979-80rako ere ez dugu Dekretu-Lege hori eskuratu ahal izango.*

*Euskararen aldeko Dekretu-Lege hori zertan dagoen jakin nahi dugu. Oztoporik badago, nork jaritzen dituen. Eta oztopoak gainditzeko zer egiten den. Atzerapenaren errudunak nortzu diren jakin nahi*



Euskal Kontseilu Nagusiak egunero batzartu behar luke euskararen gaia erabiltzeko.



*Nafarroako Erresumaren Artxiboan, dokumentu guztiak, dozena bat salbu, erdaraz daude. Nafarroan, garai hartan, eta Iruñeako hirian ere, euskara zen nagusi.*

*Ikus daitekeenez, herria euskararekin zegoen. Agintariak, kontra.*

*Eta gaur, zer?*

*Gaur, berdin. Herriak, eta ez inolako erakunde politikok ez ofizialek (organismoak, alderdi politikoak, etab.) sortu ditu ikastolak, gaueskolak, ikastaroak. 1978-79 ikasturtean 50.000 ikasletik gora ari dira ikastoletan, 65.000 inguru gaueskoletan, 600 urte honetako Uda Unibertsitatean. Baina lan ikaragarri honen protagonista herria izan da, herria soilik, eta ez alderdi politikoak ez organismo ofizialak.*

*1978-79 ikasturtean katalanek Dekretu-Lege bat dute beren hizkuntzaren alde. Eta guk, zergatik ez? "Egin"en irakurri berri dudanez, Euskal Kontseilu*

*dugu ere. Ikasturte oso bat galdu dugu, 1978-79koa, eta noren erruz gertatu den jakin nahi dugu.*

*"Bai Euskarari" kanpaina ere herriak eratu du. Zertan ari dira euskal organismo ofizialak? Eta alderdi politikoei bagagozkie, hor ari dira edozein atxakia dela eta, komunikatuak eta manifestazioak antolatzten. Eta gure nortasunaren oinarri den euskararen alde, zer? Deus ere ez. Horik, euskaraz baliatzen dira, baina ez dute euskara zerbitzatzen. Euskara "ahoz" defendatzen dute, itxuraz, baina ez ekintzez eta egiazki.*

*Orain 1978. urtean gaude eta EZ DUGU NAHI Gernikako Juntetan eta Nafarroako Erresuman gertatutakoa errepikatua izan dadin.*

*Beraz, Dekretu-Lege hori behar dugu, eta ORAIN. Eta ez gero gato por liebrerik eman!*

Xabier Gereño

7. hor.



# ALDERDI EGUNA

Ba dago desherri honetan herri bat gure koordinadatan sartzen ez dena. Baina gurekin historia eta elkar burruka asko duena. Beste eboluzio bat eramanda, soziologikoki erdibiturik agertzen gara, ez besterik.

Agian iraganaren parte izanen dira, baina agian ere, orain eta geroaldiaren parterik ugariena izan daiteke.



Eta ez dakit oraindik nola, baina "Alderdi Eguna" abiatu ginen. Beste jende asko modura, goizeko bederatzietan Arabako autobide barruan geunden, automobil hiladak gero eta handiagotuz zihoazen bitartean. Matrícula Bilbokoa, asko; gure eritzi subjektiboaz, botxeruak, Bilbo handiko bizilagunak. Ordenu zerbitzua perfektu, ertzainak amable baina bizkor. Jende guztia bideratzen zuten Olarizura. Ustekabea, azarea, nahaspila ez zen inondik agertzen. Nire bizitza osoan ez diot nik Gasteizi hainbeste birarik egin. Galdurik ote geunden niotsan emazteari baina ez geunden momentu bat berbera baieztatzeko gai, bertan agertzen baitziren beti ertz guztietatik ertzainak, andre edo gizon, semafoarena 8. hor.

egiten. Gero, parkinean, bizkaitarren nagusitasuna nabaritzen zen. Jende heldua, nagusi, atso eta ume, dena osotasun bat.

**AITA PATXI, el futuro santo de Euzkadi.**

Zelaieko sarreran, liburuak saltzeko standart batzuei muntaturik daude. Liburuak, denetariakoak, eritzi guztietakoak, denak euskal problematikari lotuta. "Que se vayan", "Pertur ETA", "El mejor defensor el pueblo", etab. eros zitezkeen. Egunkariekin berdin. Salduena "Deia". Gero beste neurri batean "Egin". Askok zeraman berbera besapean. Harritu beharko nintzateke baina gero hortaz gogoetaka, oso normala zela kontsideratu egin nuen. La Voz de España

langileak bere egunkari guztiak pilaketan, jendeari begira erosle baten zain, eta jendea jaramonik egin gabe, aurrera. Horrelako izenburuekin ez duzue gehiegirik salduko hemen, pentsatu egin nuen nirekiko, neuk ere ez nieke erosiko. Eta gero, zuhaitz askotatik dindiliska Aita Patxiren bertuteak aipatzen zituen erreklamo bat, ondoan liburu salmahaiia. Horra hurbildu eta saltzaileari galdetu nion:

**Eta zer du horrek ikusirik Alderdi Egunarekin?** Andrea bat baten ulertu baina ezinean geratu zen. Begira, esan zidan, Aita Patxi ezagutu duzu. Ba dakizu nongoa izan den, non bizi izan den?

Bai, gutti gora behera bai. Oso gizon santua izan zela ez dut nik



dudatan ipintzen. Euskal Herriak santu asko eduki eta edukiko du aurrerantzean baina denak ez dira erlijiosoak ez katolikoak izan behar. Santua izateko ardura gutti dauka gainera Vaticanoak.

**Ene! Berori ez al da katoliko?**

Ez, berori ez da katolikoa. Berori agnostikoa da.

**Bai ume polita duzu eta igual ez duzu bataiatu?**

Arrazioa duzu andrea, berak egiten du nahi baldin badu.

**Hauxe gazteok!**

Edukazioa oso agurtu dugu biok elkar, eta nahiz eta normala iruditu, niri ez zitzaidan horrela, euskaldunen artean ez baita oso komuna eritzi ezberdinekoek elkar errespetatzea.





### Gare herri suntsitu hau

Hamaikak inguruan jendez josirik zegoen guztia. Hainbat atso zahar, bazzu eskuturrekodunak, gehienak maskurdunak, langile helduak, erretiratuak, nigarrez ari behar egunaren marditasunak hunkituta. Mila kaiku, hamaikaxo txapel handi. Jazkera jatorreko folklorikoak, gehienetan erdaldureko eramandakoak, norbera bere euskalduntasunaren neurria erakutsi nahian.

Txosna asko leku guztietatik. Berriro erosi zitekeen jan eta edateko ugaria. Odolosteak, txorizoak, indabak. Guztiak gabe geunden, etxean ahaztuta. Txosnetatik txosna ogi bila, bokadilutan saltzeko bai, bestela ez. Baina euskaldunen artean edozein fabore lor dezakezu eta horixe berbera gertatu zitzaigun.

Arabako diputatuaren hitzak altatzen leku guztietara sartzen zituzten nahatoetan, bokadilu eta adimenetan. Gero osoa duingarria, garrisirik gabekoa.

Herri suntsitua zela Euzkadi; Araba bazterre ere, Nafarroako erriberarekin batera Euskal Herriko abantzada, geroaierain bazterretatik euskara hainbat lekutan desagertua.

### La lengua del imperio

Egia esateko Artzalus hitzegiten hasi zenerako, bokadilua jateko tokia bilatuta geunkan azkenez, Basozelaietako izkinetan, jendea, gizonak batez ere, beharkizunetara zihoazen toki ondoan.

Altabozek ondo funtzionatzen zuten. Luze izan zen Artzallus euskaraz. Gustoz entzuten ari nintzaion, ba daki euskaraz, ba du mezatan entzuten den holako soinu polit antzekoa. Askori, politiko abertzale askori gertatzen zaiona, Artzallusi ere gertatzen zaio. Funtsezko gauzak erdaraz esan behar. Euskara hor geratu behar da, nonbait, abstraktu, konkretio eta indarrik gabekoa. Erdaraz hasi eta ba liteke Madrilgo magnetofoiaren arrazoiengatik edo, bizkor eta hizlari on eta politikoa bilakatzen da: **“Cuando borrarón los nombres en euskara, de aquellos lugares en que deberían ser sagrados”... “cuando nos niegan el derecho del euskara en las escuelas”... “en los medios de comunicación...”**, **“cuando el euskara debe ser obligatorio en las escuelas...”** **“y se recuperará... de la misma manera que ellos nos enseñaron el idioma imperial”!**

Ogi zatia okerreko zulutik sartu zi-

tzaidan, eskuetan neraman fotomakina behegainera jausi, apurtu eta ez bainintzen txalo asmotan etorri, bes-teen antzera, bihotzetik txaloak eman nizkion.

Biharamonean PSOEk espantu guztiak eta trapu zaharrak airean botako lituzke. Interesatuta dago benetan deserri honetan bi herri diferente izatea. Interesatzen zaio, ba dirudi, norbera zer den eta nora joan nahi duen azaltzen denean etorkinen beste desherria erakustea. Interesatzen zaio aparteid delakoa ez baitute permititzen herri euskaldunik. Gogorra bada, gezurrak esatea askoz nazkagarriagoa da. PSOEk bere leku politikoa bilatu behar du etorkinengan. Hau da denen zoritxarra. Eta lekuri ez badago, gazteak euskalduntasunera ba datozkigu, non geratzen zaie muntaturiko estruktura atzerritarra?? Eta Euzkadin PNV, PSOE baino progresistagoa agertzen bada, eta langileak kontatzearen progresismoa baletorkigu, sozialdemokraten barruan eztabaidatu behar den oztopo bat bilakatzen zaigu. Eta nori eman sozialdemokraten txapela? Dudarik gabe, txapelaz mintzatzean PNVri eman behar zaio. Sonbrerua balitz...

T. Trifol

9. hor.

Urtea joanago, eta Euskadi-ren kontrako indar guztiek osatzen duten blokea nabarmenago agertzen.

Zertan gelditu da gerra garaian, eta deserrialdi mingarrian gero, 40 urte egonarriz, lortua eta gotortua omen zen "Pacto Autonomico" delakoa? Ezen abertzale sozialistei aspaldidanik esan ohi zitzaientz horixe izaten baitzen: 36-en aurreko **PSOE** anti-euskaldun hura "aldatua" zela, ia-ia abertzale ere ba zela; eta, hortaz, alferrik zela euskal ezkerria eraikitzen saiatzea. Oraindik ikusiko omen zen taktika horren egokia.

Hots, horra hor egia latza 1978-ko udazken atari honetan: aspaldi bukatu zela "ezti-bidaia". Eta orain, aurrez aurre egia ikusteko eta aitortzeko kemenik ez duten guztiak hasarretuko badira ere, gauza bat dugu begien aurrean Konstituzioari dagokionez: indar abertzaleak oro alde batean, eta indar inperialistak oro, berebat, bestean daudela. "Pacto Autonomico" delakoak, eta "klase-frenteak", eta abar, pikutara joan dira.

Aspaldidanik, geure burrukaren ardaztat, "abertzaleok bat" proposatzen dugunok, "ameslari" batzu omen gara, gaurko egoeratik arrunt urruti. Gaurko egia, egunero ikusten dugunez, "klase-frenteak", "pacto autonomico" a, eta abar, omen dira...

\* \* \*

Aukera bat ba dugu, ordea, abertzale jendeari eta logikari egokiro erantzuteko, eta behin bederen "pratikoa" izateko: esan diezaiogun **EZ** abertzale guztiok, erabat elkarturik, etsaia ere bapo baturik dagoelarik, Madrillen gu **guztion** kontra prestatzen ari diren Konstituzioari. Ager bedi, aspaldiko partez, **herri bat garela**.

Zergatik **EZ** hori?

Luzeegi litzateke Konstituzioaren azterketa xehe bat egitea; eta puntu puntu dena azaltzea. Aski dugu, bestalde, gai nagusiren batzu gogoraztea.

Aski dugu, gonbarazio baterako, Euskal Herriak Foruetako garaian ezagutu zuen askatasun-egoeraz **UCD**-ek berak (zehazki eta egokiro oraingoan!) azaldu duena gogoan hartzea. 1839-ko legea **gerra galdu genuelako** ezarri baitzen gure herrietan.

"Artículo Adicional" famatu horren arabera, 1839-ko legea **kentzen** baldin bada, hau egin behar dugu euskaldunok: Iruñean, eta Gernikan, eta Donostian, eta Arriagan, Konstituzio horren legeak **banan-banan** aztertu. Eta han, Madrillera berriz ezertarako joan gabe, **geure forua gidari**, Konstituzio horretan zein puntu onar daitekeen, eta zein ez, **askatasun osoan geronek erabaki**. Eta Madrillera hau erantzun: "Se obedecen, pero no se cumplen, los artículos X, Y, Z, etc. del texto constitucional, por ser leyes anti-forales".

10. hor.

# OTOI! DENOK "EZ"

"Disposición Adicional" hori onartzen bada, era berean, erreteriak (=aduanak) Ebro-ra eraman behar ditugu berriro; eta soldautzara geure gazteak ez bidali. Hau guztia kendu baitzigen 1839-ko legeak.

Zorakeriak handiena, halere, Forutasunaren legegiroan, "Concierto Económico" delakoei buruz Abril Martorell-ekin eztabaidan hastea litzateke. 1839-ko legeak irents-arazi zizkigun, gaitzerdi gisa hain zuzen, "Concierto Económico" delakoak; ordura artean **libroki** ematen baikenion Españari diru-laguntza.

Españak, horretara, ez du "Adicional" hori onartuko.

"Disposición" delako horri eusteak, horretara, letrari begiratuta behintzat, ba du bere funtsa; askatasuna segurtatzeko legea baita. Teorian beti... Zeren, Esparterok 1839-an bezalaxe, hasiak baitzaizkigu "marco constitucional" aipatzen; baita "solidaridad indivisible de los españoles", eta gainerakoak, azpimarratzen.


**PSOE**-k ere atzera egin du. Eta "ezkerreko" taldeak, "es una antigua" eta antzekoak esanez, kontra agertzen dira. **UCD** eta **AP** aipatu ere beharrik ez dago!

\* \* \*

Baina "marco constitucional" aren barruan, edo horrelako zerbait pasako balitz, zer guri? Ez al zuen Esparterok, 1839-ko legean hain zuzen, "se confirman los fueros" esan? 150 urtetako zoritar-kateaz kolpez ahaztuko, eta gara, **egiazko egoera ahaztuz?**

Gure herriari dagokion **autodeterminazio** bidea espreski ukatu ondoren; euskararen heriotzara ez bestera daraman diglosia, 3. artikuluan legezatu ondoren; inolako euskal heziketa guztietarako bidea hetsi ondoren; Iparraldeko anaietzako abantail-arrastorik ere gabe utzi ondoren; ekonomi-aldakuntzak aipatu ere gabe ahaztu ondoren; zergatik esan genezake **EZ** besterik? Izan dadila Konstituzio hau 1839-ko legea bezala, 1876 eta 1937-koak bezala, **inperialismo soilaren bortxaketa**. Besterik ez bada ere, gauzak garbi geldi daitezela.

Txillardegia




Gaur legez, 1839.ean, Baldomero Espartero jenerala ere Foruak "konfirmatu" egin zituen "Konstituzioaren barnean".

# ITZULPEN PRAKTIKOAK, MESEDEZ

...leak bakarrik alda  
...ezake zure hiriko eguraldia.


diru mordo hau



BARCELONA 1977'EN BUSTIRO EGUERDIKO ORDUBATETAN

Etxe barrua girotzeko du lanak.  
Hezetasun gehiegi denean, xurgatu egiten du lanak. Hotzegi denean, berogarri da.  
Temperatura bero eta lehorra denean, hezetasuna zabaltzen du.

Lanak bakarrik



Gaia publizitate itzulpenetik begirata ikutzeko kontutan hartu beharko dira "oinharrizko euskararen" ideiak indarra hartzeko izan dituen arrazoiak, zeren garbi dago jendea euskaraz egitera bultzatu behar dela, baina gauza larregi konplikatua gero, ez ote gara ibiliko pertsona batzu euskaratik larregi areagotzen.

Guzti hau ilustratzeko bi adibide jarriko ditut. Esaterako herri gehienetako jai egitarauetan "lanzamiento de cohetes" jartzen du, oso normala izaten da honelako itzulpenak ikustea "suzirien jaurtitzea" edo "su-zirien botaketa" eta abar. Ez litzateke askoz garbiago "etxafleruak" edo "bolanderak" ipintzea? Mundu guztiak ulertuko luke eta garbi legoke. Lortzen duguna: argitasuna.

Norbaitek, hala ere, esan dezake informazioa galtzen dela. Baina zer informazio klase? Erdaraz "lanzar" zeru aldera edo errekaldera izan daiteke, dudagarria zalantzarik gabe, baina mundu guztiak daki gorantza botatzen direla, euskaraz jaietan "etxafleruak" beti jaurti egiten dira eta duda gabe (ahal denean) gorantza.

Beste adibide bat jartzeko, igogailu etxe batek barnean dituen oharretan erdaraz hau dio: "Ojo! no se acerque a la puerta", itzulpena oso ondo eta zehazki egina dago "Kontuz! ez zaitez hurbil sarrerara". Lehenengotan irakurri nuenean oso ongi iruditu zitzaidan, poztu nintzen, eta orain ere poztu naiz euskaraz egitera ausartu direlako.

Baina gerora jendeak ulertzen ez zuela ikusi nuen eta proba eginez kalean galdetzen ibili. Ideia, gehienek ulertzen zuten, baina itzulpen zehatza ia inork ez zekien.

Arazoa hau da, "euskalkiak" dituela euskarak. Kasu hauetan, itzulpena egiterakoan euskalki guztietan ibiltzen diren hitzak eta jokuak erabili behar dira ahal bada. Honen itzulpen posible bat "kontuz atearekin" edo "kontuz sarrerakin" izan zitekeen, eta eman behar zuen informazioa berdin mantenduko litzateke.

Euskalkiek, oraindik, alfabetatu gabekoen artean, mensajea espresatzeko bide bakarra dira, horregatik itzulpena ez badago Euskal Herri guztira hedatua euskalkitik larregi urrundu gabe beharko egin, hori bai euskara batuan. Honetan iparraldekoak maisu ditugu.

Orain arte itzulpenetan zehaztasuna da nagusi pentsatu dugu, baina nire ustez ezin da izan lege orokorregia, adibide bezala publizitatea dago. Itzulpenaz zabaldu diren apunte batzuetan atal hauk bereizten dira: 1) itzulpen literarioa; 2) itzulpen periodistiko; 3) itzulpen pedagogikoa; 4) itzulpen zientifikoa. Hauei beste bat behintzat erantsi behar zaielakoan nago: itzulpen publizitarioa.

Publizitate eta zabalkunde euskaraz ahaztu zehaztasuna eta zientifikotasuna kontutan hartu ulerterraztasuna, argitasuna eta edukia, mensajea publikoari iristeko beharrezkoak baitira. Ez dakit zeren edo bestearen izenean, itzulpena larregi konplikatuz gero jendeak ez du ulertzen edo ez dio kasurik egiten, horrela ez dago mensajerik publizitate hori alferrezkoa da.

Euskara ahal den eran erraztu behar dugu, jendeak euskararekiko konfidantza hartzea lortu behar dugu. Eta ez dago besterik. Hona ba nire slogana: itzulpen praktikoak, mesedez! Hau da, ulerterrazak, garbiak, argiak, edukia kontutan dutenak eta mensajea zuzendua dagoen publikoaren euskalkia kontutan harturik.

Honela jokatzu, lortu behar da ere, euskaraz behintzat ez dagoen publizitatea ez egitea. Baina, era berean eta horretarako, euskal itzultzaileek lan pragmatiko bat eramatea derrigorra izango da.

Iñaki Azkoaga

11. hor.

Uda honetan hormetan ikusi diren kartel-affiche direlakoan artean, hainbat dantzaldi, jaialdi eta ekitaldia anuntziatu dira, gehienak euskaraz zein erdaraz zeuden, nahiko erdaraz soilik eta gutti batzu euskaraz bakarrik. Azken hauk berriz, euskara hutsean daudenak, euskaldun askok sistemaz eta sistematikoki ez dituztela irakurtzen konturatua nago.

Anuntziotarako joera honek, nire ustez, honako hau frogatzen du: jende honek publizitate arruntean erabiltzen den euskara ez duela erraz ulertzen, konplikatuegia zaiola, ahalegin handiegia egin behar duela. Ondorioaz, pertsona hori (kartela euskaraz irakurri ez duena) euskara idatzitik, distantzian, urrundu egiten da eta euskararekiko deskonfidantza zirkulua suposatzen duen itzal bat sortzen du bere inguruan.

Problematika, beraz, nahiko serioa, baina gaur ez nuke nahi aztertzerik guzti honen zergatia bere luze zabalean. Arrazoi sozialak abstraituko ditut eta beste bat ikutuko, hain zuzen, euskarara egiten diren itzulpenena edo gehiago zehaztekotan itzultzaileena, azkenean berak baitira itzulpena egiten dutenak.

Egun hauetan, Euskal Herri osoan, Enkartzazioetatik Zuberoaraino eta Baionatik Tuteraraino, gazte eta heldu jende askok ekingo dio Euskalduntze eta Alfabetatze lanari.

Joan zen urtean, jende larria, 35 milatik gora izan zen Euskal Herri osoan euskara ikasten edo lantzen ihardun zena. Aurreko urtean bezalatsu.

### Oihuek ez dute balio

Euskara garrantzi handiko arazoa dela konturatu da jende hori guztia: euskara ikasten edo lantzen ez badugu, euskararenak laster egingo du, eta euskararenak eginez gero, Euskal Herriarenak ere laster egingo du.

Baina, nondik nora gure kezka euskararen etorkizunari buruz, jendea inoiz ez bezala ari baldin bada euskara ikasten? Erantzuna nahiko garbi dago: gaur egun Euskal Herrian bizi garenon artean 632.300 euskaldun (=euskara+dun) gara; jendetza guztiari begira, % 23 bakarrik. Ez gara, beraz, 1/4-era iristen. Gaurko Euskalduntze mugimenduari jarraituz, 1985-ean 900.000 lagun inguru izango gara euskaldun; urrats handia, noski; historian beste inoiz gertatu ez den bezalako. Baina, urte horretan berean Euskal Herrian 3.400.000 biztanle izango gara. Beraz, euskaldunak % 26,5 izango gara. Oraingo bideari jarraikiz, beraz, ezer gutxi aurreratuko genuke proportziotan.

Eta jakina, orain entzuten ari garen sasi-arrazoi berak entzun beharko genituzke: euskaldunok ez garela 1/4-era iristen, minoria bat besterik ez garela; beraz, ez dugu eskubiderik herri oso bati dagozkion eskabideak egiteko; ez dugula eskubiderik euskarak ikastetxe guztietan, Administralgoan, Komunikabideetan eta Zerbitzu guztietan sarbidea izan dezan eskatzen...; "Euskara kalera, lantegira, eskolara" edota "Euskara jalgi hadi plazara" oihuek ez dutela zentzurik.


Sasi-arrazoi horiek noiz arte balio izango duten salatzen hasteak ez du zentzu handirik. Bestalde, ordea, zer aurreratzen dugu espainol eta frantses hizkuntzak indarrez ezarri zaizkigula esaten aritzeaz? Zer aurreratzen dugu espainola eta frantsesa hizkuntza arrotzak ditugula esaten aritzeaz?

Errealitate negargarria, baina errealitatea, hauxe dugu: Euskal Herrian euskaldunak gaur egun 1/4-a garela; eta egoera hori ez dugula gehiegi aldatuko orain arteko bideei jarraituz hutsez. Horra egia.

Beste bide batzu urratu beharrean gaude, beraz. Egoera aldatu nahi baldin badugu bederen. Zeintzu dira, halabaina, urratu beharreko bide horik?

Orain arte, euskara ikastea edo lantzea gutxi batzuren "txorakeria" edo "afizioa" izan da. Beste askoren ustetan, ba dago aurreragoko lanik: lantokietako borroka dela, ikastetxeetako iraultza dela, Euskal Herriaren liberazio nazional eta soziala dela, 12. hor.

# HIZKUNTZA



Elkar ulertzeko atxakiaz, euskara bazterreratzen ari gara. Eta utzikieriaz ere, bai. Eta harrokeriaz eta lotsaz.

Ez da, ordea, aski euskara ezpainez eta idatziz erreindikatzea. Euskara, erabili egin behar da. Ez da aski euskara irakastea ikastetxeetan; euskaraz egin behar dira ikasketak; konforme gara guztiok hortan. Baina, noizko uzten dugu etxean eta hitzaldietan eta manifestaldietan eta lantegietan eta kalean euskara erabiltzea? Euskal Herri osora hedatu behar dugu euskara; bestela alferrik ari gara Nafarroa Euskadi da oihukatzen. Arrazoi beraz beharko genuke oihukatu "Gipuzkoa Euskadi da". Aizpun eta Del Burgo asko dago Euskal Herrian alderdi honetatik.

Dei berezi bat egin nahi diogu Goiherriko herri osoari eta Euskal Herriko guztiari euskara erabil dezan eskatuz. Eta ez dakitenei ikas dezaten. Orobat alderdi politiko eta sindikatuei, beren programetan euskararen arazoa sar dezaten eta aurrera bidean jar dezaten; beren militantei ahalik epe laburrean irakatsiz, e. a.

Independentzia dela, Sozialismoa dela, e. a. Esan genezake, horrela mintzo direnak sustraian, arazoaren muinaz ahazturik dabilzala. Izan ere gaineratiko exigentzia eta eskabide guztiak, gure herriari euskal herri (euskaldun herri) izateak ematen dizkion ondorio logiko besterik ez baitira; hizkuntzan, hau da, euskararen oinarritzen baita Euskal Herria nazio diferente eta berezia izatea. Eta hortik ateratzen ahal dugu independente izatearen arrazoa. Independentzia horixe saildu zien kapitalismoak Frantzia eta Espainiari, herriaren aurka, tratu maltzur baten bidez.

Munduko hainbat nazio geografian nahiz arrazan finkatzen dute beren naziotasuna; geurea, guk, hizkuntza finkatzen eta oinarritzen dugu. EUSKAL HERRIA = EUSKARA + DUN HERRIA.

Euskaraz ez egiteko atxakiak

Baina, ba dirudi, gaur egun guzti hontaz ahazten ari garela. Independentzia eta sozialismoa, e. a., ari gara eskatzen; baina, guzti horien azpian dagoen funtsaz ahazten ari gara, baztertera uzten ari gara. Euskara halegia.

# KOLONIZAPENA ETA HERRI BORROKA



hizkuntz kolonizapenaren fruitu bat

Ez dakigula gerta Irlandari gertatua. Orain 60 urte lortu zuen independentzia; bere hizkuntza, ordea, galduz doa.

Jende askok esango du bere baitan: hortan, independentzia lorturik halegia, bageunde!

Baina, orain arduratu ezen, nork agintzen dit niri independentzia lortuz gero, euskara berreskuratuko dugunik? Eta, gorago esan bezala, euskararik gabe agur Euskal Herria.

Zenbait jendek, ordea, ba daki euskara, eta ba dirudi, ez doakiola ezer ere arazo honetan; bera euskaldun dela, eta arazo hori ez dakitenena dela. Esan behar da, aitzitik, arazoa ez dela euskararik ez dakitenena bakarrik. Euskara nola edo hala bakarrik mintzatzen dugunona ere ba da. Izan ere, euskara familian edo herrian ikasi genuenok pentsatzen dugu ba dakigula nahikoa, eta ez dugula besteren beharrik. Bien bitartean, ez gara gauza artikulutxo bat irakurtzeko, ez eta ohar txo bat euskaraz txukun idazteko. Eta irakurtzeko erreztasunik ez dugulako eta idazten ez dakigulako, erdarara jotzen dugu.

Guztiok dakigu hutsune horren sustria non dagoen: euskaraz eskolatuak ez izatean; erdaraz ikasi genuen irakurtzen eta idazten. Hitz batean, *hizkuntz kolonialismo baten fruitu gara*. Hizkuntza arrotzetan eskolatuak gara, eta geure hizkuntzan *analfabeto huts* gara.

Baina, berriro esan behar da: hori guztia aitortuz eta oihukatuz ezer gutxi aurreratzen dugu. Ezin konforma gaitetze "aitortza" horiekin; logika apurrik baldin badugu bederen.

**Hizkuntz kolonialismo baten fruitu gara**

Izan ere, beste arlo askotan, esaterako, ideologi edo sozio-ekonomi-politika sistemari buruz ez dugu modu

berean jokatzeko. Ez gara konformatzen gure lantokietako explotazio sistema, aginte politikoaren indarkeria, kontsumo gizartearen engainua, e. a. kapitalista sistemaren fruitu direla aitortzearekin, borrokatzea eta egoera aldatzea bilatzen dugu.

Hizkuntzaren arloan, berriz, gure egoera hizkuntz kolonialismoaren ondorio bat dela esatearekin, berealdiko aurkikunde bat egin bagenu bezala, nere hartan gelditzen gara, eta kolonizatzaileen hizkuntza erabiltzen dugu: espainola nahiz frantsesa. Eta hor dago kakoa. Hor dago gure okerra.

Izan ere, hizkuntz kolonialismo baten fruitu gareia jabetzen garen une beretik kolonialismo horren menpetik askatzen ahalegindu beharko genuke, geure hizkuntzaren ezagupidea sakonduz eta landuz, kolonialismo hori borrokatuz eta geure ingurukoak kolonialismo horretatik askatzen saiatuz.

Eta hizkuntz kolonialismoa borrokatzeko, edozein eratako kolonialismoa bezalaxe, ez dago bide bat besterik: kolonizatuen konzientzia esnatuz, kolonizatua dagoen herriko balioak indartu eta berbiztu.

Bestela, beste engainu batetan erortzeko arriskua dago! Horixe: kolonialismoaren salaketa egin, iraultzaren beharra aitortu eta, berriro ere, kolonialismoaren sareetan bizi. Eta negar-garriagoa dena, kolonialismoari jokoa egin; kolonizatzaileen hizkuntzaz baliatu beharrean gertatzen garen aitzakia-ekin, beraren hizkuntza kontsolidatzen eta indartzen ibili.

Eta horra! Kolonialismoaren ziklo maltzurretik askatu ezinean aurkitzen gara.

Hona bada. Hizkuntz kolonialismoaren sare maltzur horietatik libratzeko bide bakarra, zera dugu: geure hizkuntza erabiltzea hizketan, idaztean, irakurtzean; geure hizkuntza, euskara, erabili nonahi eta beti etxean, kalean, lantokian, jolasean, kirolean...

Bestalde, euskara erabil ezazu Administralgoan, Eskolan, Komunikabideetan, Zerbitzu publiko eta pribatu guztietan.

Horrela bakarrik hautsi ahal izango ditugu kolonialismoaren katemaila maltzur horik.

Horretarako, ordea, lehen ikasterik izan ez genpene orain ikasi behar. Euskararik ez dakienak ikasten hasi behar, eta hitzegiten bakarrik dakienak irakurtzen eta idazten ikasi behar.

Kolonialismoa borrokatzeko beste biderik ez dago.

# INJINADOREAK ETA EUSKAL HERRIA

Oso ongi inpresionaturik utzi gaitu "El ingeniero hoy" izenpean Bizkaiko eta Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako industri injinadoreen elkargo ofizialek argitara eman duten liburuak. Egilea Talde Izeneko Euskal Estudio Elkarteak izan da.

Horrietan zehar injinadoreei buruzko azterketa sakona egiten da. Horretarako Euskal Herrian dauden 3.026 injinadoreetarik 917ri inkesta bat bidali zaie. Hauetariko 426k erantzun dute. Inkestaren erantzunetan finkatuz hainbeste puntu aztertzen dira: injinadoreen egoera profesionala, egoera sozio-ekonomikoa, lanean hartzen dituzten jarrerak, eta abar.

Beste zenbait eritzi eta jarrera ere aztertzen dira, hala nola erlijioari, heziketari eta emakumearen problematikari buruzkoa. Dena den, nik neuk bi puntu bitxi aipatu nahi nituzke: Zentrale nuklearren aurreko jarrera eta Euskal Herriari buruzkoa.

Zentrale nuklearrei buruz galdera hau egiten zaie, gutti gorabehera: Ados al zaude Espainian eta Euskal Herrian bereziki zentrale nuklearrak eraikitzeko eramaten ari den politikaz? Erantzunak honela banatzen dira ehunekobestetan:

colegios oficiales de ingenieros industriales de Alava, Guipúzcoa, Navarra y de Vizcaya



Bizkaiko eta Araba, Gipuzkoa, Nafarroako industri injinadoreen elkargo ofizialak



talde, euskal estudio elkarteak s.a.

## Promoziok

	Orotara	1940	1941 1950	1951 1960	1961 1970	1970
Hiru probintzia	20	58	29	34	20	11
Lau probintzia	26	-	36	20	25	30
Zazpi probintzia	51	25	21	42	53	51
Ez dute erantzuten	3	17	14	4	2	1

b) Oinarrizko alternatibak

## Promoziok

	Orotara	1940	1941 1950	1951 1960	1961 1970	1970
Erregionalismoa	34	50	53	34	34	29
Autonomia	16	8	23	18	14	17
Burujabegoa	50	42	23	48	51	54

Erabat ados..... 12 %  
Nahiko ados..... 31 %  
Berdin dit..... 4 %  
Ez diot ongiegi erizten..... 27 %  
Erabat aurka..... 26 %

Liburuaren egileek ateratzen dituzten ondorioen artean, arazo hau ideologikoagoa dela zientifikoa baino diote.

Zer deritzote injinadoreak Euskal Herriari (bertan, erdaraz baitago, País Vasco diote. Oso interesgarri ikusten ditudanez, osorik kopiatuko ditut bi koadro.

a) Euskal barrutia zein den.

Datu guztiak ehuneko bestetan (%-tan) daude.

Gauzak horrela, ez da harrizkoa liburuaren azalean Euskal Herri zazpi-koitzaren irudia ikustea.


Ez ote dira interesgarri? Ba, hauk eta beste datu asko bildu dira lan horretan. Zorionak lanaren egite eta bultzatzaileei, eta ea bestelako batzu ere antzerako lanak egitera animatzen diren!

Ramon Garai

# Portzelanaren zuria eta Bidasoaren urdina jatorduan mahaia dotore jazteko.

**CAJA LABORALAK 180 BAXERA ETA DISEINU EDER ETA BAKARREKO 380 KAFEONTZITERIA ZOZKATUKO DITU.**

Sari bakoitza altxor bat duzu. Ontzi bakoitza artelan...



**B**idasoako Portzelana, Europako portzelanarik onenen artean aipatu eta aitortua, Euskal Arte Herrikoiairen adierazpen nagusia dugu, noski; eta gure buztingin eta eltzegileen lan luze eta burutsuaren emaitza baliosa. Euskal Herrian, nork ez du, inoiz edo behin, Bidasoako Portzelanazko ontziteria amestu jatordu mahaia dotore jazteko? Zerbitzu egokia da batetik, eta bestetik, gure herriko artesauk maitasun haundiz eginiko lanaren findadea eta sofistikadura baliagarritz jantziak daude.

## 180 Baxera.

\* «Neguri» edo «Tanger» baxerak  
12 lagunen zatit.  
57 ontzi



**C**aja Laboralak Bidasoako Portzelanazko 560 ontziteria -180 baxera eta 380 kafeontziteria- zozkatuko ditu oraingoan. Hurbil zaitte gure bulegoetako batetara, eta eskuhar zuk ere kanpaina eder honetan.

Bidasoako Portzelanaren disdira, kolorea eta diseinua mirets ezazu Caja Laboraleko edozein Bulegotan.

## 380 Kafeontziteria.

\* «Neguri» edo «Tanger» kafeontziteria  
12 lagunen zatit.  
27 ontzi



**C**aja Laboralaren sartzen duzun 1.000 pezeta bakoitzeko eta lehendikako saldoan 10.000 pezetako haina zozketa txartel emango dizugu. Suerte jaunarekin bekozkotzen ez ba zera, 560 saritutatik bat izan zaitzke.



**CAJA LABORAL POPULAR**  
**LANKIDE AURREZKIA**  
Euskadiko Kutxa

## NORK ULERTZEKO?

Mundu guztia hor zehar euskara erraza eta oinarrikoa oihuka eskatzen ari zai-gunean, ez dut uste. DEIAK (78/9/26) ekarri zuen artiku-lu hau hain barkagarri denik. Gazteon euskara artifiziala eta laborategiko baldin bada, zenbaitzuk diotenez, zer izen emango diogu hor-koari, *Saiaketategiango santapuretan* sortua edo? Baina zer egingo diogu, puristak gurean, perretxiko biltzaileak bezain ugariak dira. Gaixota-sun kronikoa gurea!

### Saiaketategiango ernalketa

### Bidutziak sor ditezke santapuretan

Gaiz arduratzen diren zientzia-gizon txilearrak diotenez, santapu-rango ernalketak haur bidutziak sortarazi ditzake. Ernaltze-modu horren saiaketak Txilek egin izan dira, animaliekin. Claudio Barros buru debeko Unibertsitate Katoli-koaren Saiaketategian.

Esan sutenez, animalien arrautz-toak santapuran askotan ernarazi dituzte, eta ez dute behin ere biduz-tasun-zantzurik aurkitu. Barros jaunak gaineratu zuenez, Inglate-rrako Steptoe eta Edwards-ek baino ez dituzte saiaketa hoiek gi-zakietan egin, eta egin dituzten 70etan ere ez dute kromosoma-mailako aldaketarik somatu.

Raul Fernandez Donosok eta beste jakintsu batzuek diotenez, or-dea, ba da hoietan ondare-biduzta-sunen arrijskurik. Ernalketa ohizko bideetatik gertatzen denean, ba da berezko hautakuntza bat, eta hazi-izpi eta arrautzko ahulak ernalketa baino lehen hiltzen dira, eta orobat ernaldu ondoren biduztasunen bat dakarketen arrautzkotoak ere, baina santapurangoetan ez da hor-relako berezko hautapenik gertatzen. Ba da, gainera, eskuartearen erabiltzean ernalgaiak aldatu dite-zeneko arriskurik ere.

Fernando Valenzuela Erazoren iritziz, legeak, etikazko balioen zantzaite izatea dagokionez, ez ditu ernalketa-bide hoiek onar-tuko. Armando Roa sikiatraren ustez, horrelakoetan behar bezala-ko psikologiazko girorik ez dago, eta aurrez pentsatu ezinako ondo-riak ekar ditzakete.

Raul Fernandez biologilariak ez zuen hortan arrisku haundirik da-goienik uste, eta Maria Anjelika Montenegroren aburuz, berriz, emakume antzuentzako aterapide bat izan ditezke.

Leng irakaslearen Zientzia-Aka-demian egindako mahai-inguruko batean azaldu ziren esandako iritzi hoiek.

## "GORRIAK BERRIZ BALETOZ?" (BREJNEV-EN ISTORIOAK)

Brejnev-ek, seme zintzoa izaki, amari bere karrera politikoa arrakasta azaldu nahi izan omen zion. Eta, asmo horretan, Ukrainiako Dnieprodzerjinsk herrixkatik etorrerazi omen zuen eta bere apartamentu zapal, dotorea ikustera eraman.

Iritsi, sartu, semea dena erakutsi beharrez, apainduriatik apainduriara, etxe guztia korritu, eta amak hitzik ez, ixilik... Ixilik ez ezik, hasar-ratxo ere... asperturik edo. Orduan Brejnev-ek heldu dio telefonoari, Kremlim-era deitu eta bere ZIL, auto apai-na, ekartzeko agintzen die.

Hartu ama eta Ousovo-ko bere DATCHA, txalet ederre-ra darama. DATCHA horretan bizi izanak ziren URSSeko handikiak: Stalin eta Khrouchtchev. Dena ikuste-razten dio amari, lorategi guztiz loratsuak erakusten dizkio, baina ama ixilik, hitzik gabe...

Brejnev kezkatzen, larritzen da, ba doa, bere heli-koptero pertsonala eskatzen du eta bertan ama harturik, hestu eta presa, zuzenki Zadidoro-ko bere ehizategira abiatzen da. Heldu eta bere-hala oturuntz gelan sarreraz-ten du, tximiniaren handia miresterazten dio, fusilak, hango apainduria, edertasun eta luxu guztia agertzen dizkio... Ez alferrik! Ama ixilik, hitzik gabe. Hori ikusiz, ezin du etsi seme zintzoak, kezka barrenean, harra bihotzean, eta galdetzen dio amari: —"Ama, esaidazu, zer pent-satzen duzu honetaz?" Amak zalantza, baina azke-nean ausartuz ihardesten dio: —"Alafede! Oso ederra da hau dena, Leonid... Baina gorriak berriz baletoz?"

Hedrick Smith: "LES RUSSES" (Ed. Pierre Belfond, 1976) liburutik hartua.

A. E.

## EUSKALTZAINDIA KONSTITUZIOAREN KONTRA.

Irailaren 29an, Euskaltzaindiak Donostian egindako bileran, Xabier Kintana euskaltzain laguntzaileak, Espainiako Konstituzio honek euskararekin darabilen bereizkeria nabaria salatu zuen Akademiari, horri buruz, protestako agiri bat egiteko komenientzia azalduz. Eskari hori bilerako guztiek onartu zuten, horren kariaz ondoko hau ideatziz. Pro-testa hori Madrileko Gobernuari, Euskal Kontseiluari Nagusiari, lau diputazioei eta komunikabideei bidali zaie.

"Euskaltzaindiak, 573/1976 erret dekretuaz, Juan Carlos I Errege jaunak beste betebeharrak batzuren artean, hizkuntzaren erabilera bultzatzea eta beraren eskubideak zain ditzan, onartuak, zera uste du, orain eztabai-datzen ari den konstituzio-projektuaren 3. artikulua, gaztelania ez diren beste hizkuntza nazionalak bereizkeriaz darabiltzana, jendaurrean salatze behar morala duela.

Akademia honek, arazo honetaz inork galdetua izan ez denak, goian aipatu-riko artikulua, gainera, Espainiako Estatuak sinaturiko Genevako Giza Eskubideen Agiriaren letra eta izpirituarekin bat ez datorrela gogorazi nahi du.

Horrela ba, artikulua horren oraingo testua gure hizkuntzak orain arte Historian zehar pairatu duen bazterte-politikaren segida dela uste dugu, hura Espainiako oinarri-legean horrela kontsokratuz".

Donostian, 1978.eko irailaren 29an.

## ALDERDI EGUNA ETA MADRILEKO EGUNKARIAK

Lerro hau idazten dituenaz ez da EAJ alderdikoa; baina hala ere oraingo honetan bere aldeko iruzkin bat egingen dut. Madrilen Euskal Herria zer den ez dakitela, guztiok dakigun gauza bat da. Eta hemen bertako agintarien gustuko ez den zerba-it gertatzen denean, erdi zoraturik geratzen dira. Eta egunkari madrildar guztiak gogorki mintzatzen dira euskaldunen kontra, bai eskuinekoak eta bai ezkerrekoak.

Lehen Aberri Eguna ere gertatu zen. Manifestazio izugarriak ikusiz, gerra perloidistikoa egin zuten. Eta militarrak batzuren kaskoak ongi berotu zituzten. Ezin ahal izan zuten sufritu, Aberriaren alde hainbeste jende bateraturik ikustea.

Orain alderdi konkretu batan aurka ari dira. EAJ-k arrakasta handiz ospatu zuen bere Alderdiaren Eguna. Diotenez ehun eta hogeimila pertsona edo bildu ziren Olarizun. Eta Madrilen beldurtu egin dira. Eta zoro bezala, prentsa-kanpaina bat antolatuta dute EAJ-ren kontra, eta bide batez —nola ez— Euskal Herri osoaren kontra.

Ene ustez, EAJ-ri ezer aitortu behar bazaio, horrelako lekuetan jendea biltzeko duen indarra da. Agian, UCD-koek, PSOE-koek eta beste askok horren enbidia dute. Baina, prentsa-kanpainan era guztietako abertzaleen kontra jokatu da.

Zuek zer uste duzue? Kanpaina hau kasualitatez gertatu dela?

R. G.



**PNV-K  
BAIETZA  
KONSTITUZIOAREN  
BIGARREN  
ARTIKULUARI**

"La indisoluble unidad de la nación española, patria común e indivisible de todos los españoles, y reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que la integran y la solidaridad entre todas ellas" delako textua EAJk onartu egin du. Pauso hau emateko ez dago dudarik, arrazoi politiko oso gogorrek egon behar direla. Eta hastapen kontuetan ez pentsa. Sabinoren "Euzkozarren aberria Euzkadi da" delakoa, kontradizio ikaragarrian sartu dute.

**70.000 KG.**

**TOMATE  
USTELTZEN ARI  
NAFARROAKO  
ERRIBERAN**

Hala gertatzen da. Honela zuzendu nahi zenbait komisiotako ordezkariak Bilbora "Mercabilbao"ra etorri dira, orain gutti. Baina Mercabilbao-ko monopolistek atzerriko tomatea erostea nahiago dute, etxekoa usteltzen den bitartean. Oso kapitalista, oso estatista, oso espainola, oso logikoa. Gure asmoak berriz burgesak ote diren pentsatzen dut nik inuzenteki. Eros itzazu lehenengoz Euskal Herriko produktuak. Bilboko kaleetan laster salgai.

**LLUIS COMPANYS - LUIS  
IRIONDO:  
EUSKALDUN BAT  
GENERALITAT-EKO  
LEHENDAKARI**

Irailaren erdi aldera hasiko dira "COMPANYS, PROCES A CATALUNYA" filmagintza lanak. Eta hasi ere Ferran Llagostera, Antoni Freixas eta Josep M. Forn-en gai baten araez eta azkenengo bion gaoi bati lotuz hasiko. Filmagintza J. A. Pérez Giner-en esku joango da eta Josep M. Forn-en zuzendaritzapean.

Duela urte bete pasa Llanterna Films-ek (Antoni Freixas) hasitako lanaren projektua guttienez ere hiru produktorak elkar lanean burutuko dute (Llanterna Films - ProZesa - P. C. Teide). Eta une honetan Frantziako beste erakundeekin elkar lan bideak egiten dihardue.

Estudio barruko filmagintzak Bartzelonan egingo dira eta berezko kanpo-barrukoak Frantzia eta Espainian.

Filmaren argumentua Euskadi eta Catalunya-ko Gobernuburu Jose Antonio Aguirre eta Lluís Companys herbesteratzeaz hasten da, geroago Companys-en hartzemate, afusilaketaren prozesuan murgilduz, lehengo zenbait gertakari ere berritzen delarik.

Filme honetako protagonista, lehendakari erahilaren antz haundiko den Luis Iriondo aktore euskalduna izango da, izen haundiko beste artista zenbaitekin lantaldea osatuz.

**ERRENTERRIAKO GESTO-  
REAREN IZENEAN; PAS-  
TELAK GOARDIA  
ZIBILARI**

Bide onetik jakin dugunez, Errenteriako udal gestoreak pastelak bidali dizkie Goardia Zibilei, herriko jaiak direla eta. Herrian marginaturik daudelako omen eta integratzen hasteko.

Zorionak ideia eduki dutenei eta dirua ipini dutenei! Horrela ez dute premiarik izango, leihoak apurtuz pastelak jateko.

Eta gehiegi ez bada, mesede bat eskatuko diet: San Martinak direnean, guttion izenean "Gateau Basque" biribil bat bidal iezaiozue Martin Villa-ri. Beraren santua da eta oso pozik jarriko da. Azken batez, zer gauza hoberik umeen irribarrea baino!

R. G.

**MONREAL ETA GIS-  
CARD D'ESTAING**

Giscard D'Estaing-ek, Monreal euskal senadoreak iparraldekoentzat "nazionalitatea" eskatu zenetik ordubetera Suarez-i telefonatu egin zion. Ez eskerrik eskaintzeko, jakina, baizik eta "ideia bitxi" hori lehenbailehen burutik kentzeko. Nahiz eta Suarez-en erantzuna ez jakin, buru deza-kegu nolako erantzuna izan zuen.

**IRAKURRIA Nonbait**

**HERRIA dibisatik hartuta**

Baserritarren ezpaineak sortu eta moldatu dute euskara: Ezin onhar daiteke euskara batuaren izenaren ere mespretxa dadin haien mintzaira bizi jatorra. P. L.

Eta dibisa hori ez bada euskara batua zer da ba euskara batua?

**EUSKALDUNAK**

Au Pays Basque, tout est à vendre, et à bon marché; on brade. On vend les produits "touristiques": gasna, rosé, chingar, taloa, chahakoua, loukinka, chichon (sic), etc... Regardez les affiches autor de vous. On vend les corsaires, les pirates, les contrebandiers. On vend les fermes, les cols de chasse. On vend la plage aux promoteurs. On vend saisonnièrement et à bon marché nos jeunes aux exploiters. On vend les usines. On vend la Roseaie d'Ibarriz. Ainsi, alors que les syndicats sont encore à mobiliser pour défrendre cet établissement, la publicité de sa vente — comme l'atteste le document ci-joint — est annoncé dans la revue "Liaisons sociales" numéro 7.808 en date du 11 juillet dernier.





Hua-Kuo-Feng eta Shah sarraskiaren egun berean topa egiten.

Aspaldian, gure planeta urdinaren banaketa sinatu zenez geroztik, mundua salbuespen guttirik, Cuba kasu, bi bloketan eta bi ekonomi kontzepzio ez berdinetan erdibiturik agertzen zaigu. Batetik bestera, superpotentzien baimenik gabe saltatzeak, suizida ez bada agian, odola dakar beti; askotan oso antzuak izaten dira gatazkak, are gehiago ureztatzeko odolik erabiltzen ez dela kontsideratzen bada. Txarrena, itxaropengabekoa, itxaropena gure fusilen puntetan oinarritzen bada behintzat.

### Zer da Pertiako SHAH?

*Izatez monarka absolutua da. 25 urtetik hona, Amerikanoen laguntza baldintzagabea duela Iran gobernatzen du bere gisa, SAVAK polizia politikoan oinarrituz. Hiru hizkuntza dakitza. Ingeles, frantses eta iraniera; nahiz eta azken hau bertako hizkuntza izan, Shah-ek gaizki eta zailtasunez egiten du. Shah-ek eta kutunek, eremuak eta aberastasunak atzerritarrei saltzen dizkieten artean, herria gatazkaren bidegi jarraituko zaio, zapalkuntzaz, exilioaz, hilketat bultzatuta. 1953ko abuztuaren 18an tronutik jaurlaria eta Erromara ihes egin da. Estatu Batuen interbentzio harmatu zuzenari esker iraultza zapaltzen da. Iraultzaileak, lepo eginda urkatu eta tronuan jesartzen dira berriro inperatoreak. Hemendik aurrera, ingeles eta frantsesek galtzen dute zenbait mozkin eta botere eta... Pertiako inperatore dirdiratsua, erregeen erregea, amerikanoen zakur jatorra bilakatzen da osoz.*

*Orduko denboretan zenbait oposizio indar lagatzen bazen, orain, jabe berri demokratikoekin, oposiziokoak, harmadun ala harmagabe, publikoki, agerian, Teheraneko plaza eta enparantzetan, prestaera eta espantu guztiekin, dindilizka, buruz behera, musulmanen usadiora urkatuko dira, erdi-baroan dagoen herri bati dagokion bezala.*

*Pertiako inperatorearen karakteristika nagusirik nabarmenena berau, espantu eta prestaera gorpuzten da edonon.*

## SOZIALISMO IRAULTZAILEA.

*Espantu eta prestaera dago Sorayaren ezteietan. Mundu guztiko pentsakera erromantikoen goseak bete ziren egun hartan, behin bateko printzearen historia amets egiten zuten horik oroituko dira hortaz. Hain handia atera zitzaien zeremonia, ezen Soraya semerik ez zuelako baztertuko duenean ere, beste hainbeste eginen duela geroago, planetako errege eta lehendakari, ministro eta kardinalak parte hartuz. Eta obi den legez, erregeen erregearen erregalua erreginari*

*"Itzasoko argia", 186 kilate, 475 diamantezko harriez osatua; urregorritzko janzkia, munduko begal guztietako harri bitxiez josia, 300 milioitako erregina bat, berria aldameanean arkakusoz eta gaixotasunez jana duela ere.*

### IMPERATOREAREN hamaika arrazoi horik

*Shah-ren deklarapen berri batzuren arauera mendebaldeko naziook, komunismo internazionalaren kontrako burrukaz interesaturik ba daude, biziki defendatu behar lukete bere gobernamentua. Hitzek hitz, honela dio Shah-ek: "Europa eta Iran artean dagoen menpekotasunaz begiak hitxita ere, konturatuko dira europarrak. Hiriokarburuen gordetzailerak garelako eta berauei ehuneko 70ean Europa loturik zaielako, Japonia ehuneko 80ean eta Estatu Batuak ehuneko 50ean daudelako, status quo aldaketuko balitz, denak hilik geratuko zinatekete, tiro bat inon ere bota gabe."*

*Horrexegatik hil dezake inperatoreak esker zein eskuin alde-tik. Honegatik bereziki, prentsa agentziek albisteak desitxuratzen dituzte abal duten neurrian. Kontu hau zabarra dela diote; azken batez, erlijio eta eskuindar atzeratu batzuren arazotzat presentatu nahi dute.*

*Irail honen bigarren astean, Teheraneko edozein plaza ingurutan elkarte europeo eta amerikanoen jaueregietako adreiluak solik es-*



NAZIOARTEKOA

# BIZITZAREN IKUSPEGI ALAI ETA HILTZAILEA

kuetan zituztelarik, 250 pertsoa afusilatu zituzten militarrek kainokadaz, Txinako ministrariaren Hua-Kuo-Feng, laguntza azpimarkatzeko bere bisita diplomatikoa bat batean luzatuz.

Azken batez, hau guztiau, Txinako esaera zabar eta jakintsu bati lotzen zaio ondorioz: "Ez bota adreilurik, USA, Europa, Japonia eta Txinak ipini dituzten tankeen kontra". Baina komunismo internazional delako hori gebienetan eta Iranen bereziki basamortuko kukuaren kantua bezala izaten da. Nazio-

arteko komunismo hori, Nikaraguan bezala, defentsari gabeko herri pobre eta goseti batetan mamitzen da, non nazioarteko komunismoaren trikimailu guztiak urtu egiten baitira.

## Dominatzaileen taktika berria: Demokrazia salbatzaileak

Aspalditxoan, ni neu Londresen ingeles estudianten ari nintzela, Iraneko estudiante dirudun

Europako masa koipetsu eta totoloen arduragabetasun itzelean gure telebista eta irratiaren albisteetan, munduko istorio edo historia hauk errepliketzen dira egunero, soinu bakar batez abestuta, laburra eta gezurtia, Iranen edo eta Nikaraguan asesinatzen duten berberoeiek kontrol duta, gu usteltasun neurtuaren irenselek izanki.



batzu ezagutu nituen. Norberak, banan bana, bere herriari buruz mintzatu behar zuen ia eskola guztietan. Han jabetu nintzen, Shab-ren egite handiez. Teheraneko autobideak, azpiegiturak, supermerkatuak, luxuzko etxeak, petrolio industria eta errefinategiak: teknika ultramoderno guztien lekua iruditu zitzaidan Iran. Horien ondoan gure labegarai zabarrak ipiniz gero! pentsatzen nuen askotan. Sekula, ez zuten miseria gorririk edo afusilatzerik aipatu, gartzelak eta sarraskiak ez ziren inondik agertzen, horrexegatik gure marxistiko unibertsitarioak arazoak itxuraz handiagotzera bultzatzen gindutela pentsatzen hasi nintzen.

Gaur oster, USAko lehen-dakariak berak, Iraneko 30.000 kontseilari amerikarren buruak, Sovietar Batasunarekin 1.000 kilometroz gaindi mugak gordetzen dituen honek, ez du ez Nikaraguan ez Iraneko asuntuetan parterik hartuko, Shab-ren hamaika arrazoi horik biguntzeko abaleginak egiten dituen bitartean.

Taktika berria zera da: raguan, Iranen, Guatemalan eta beste toki askotan sui generis demokraziak plazaratzea. Emakume erretrik ikustea, zakurrak bildakoen muinak eta tripak nola jaten dituzten ikustea ez baitzaio komeni mendealde honi. Espainian eta Portugalen egin zutena egiten saiatuko dira bertan ere. Baina egia esan, ez dio hontaz laguntzen asko ez espazioak ez denborak. Hala ere hori dake beren azken menderatze-arnasa, ez baitute beste soluziobiderik gaur egun ikusten.

Sovietar Batasuna itsu gertatuko da; bitartean, gobernamentuen ate herstuak zabalduko dituzte, abots eta zenbait garrisiminak entzuten permitituz. Dena den, herriak ez du barkatuko eta zikloa betetzen hasiko da berriro. CIAk inperatorea hiltzen badu ere, loterieren esperantza bakarra geratzen zaie dominatzailei, zeren bizitzaren ikuspegi alai eta hiltzaileak loteriak baino oinarri sakonagoak baititu.

T.Trifol



KAFETEGIA



J. JAUREGI 6 ZORNOTZA. Tf: 673 00 21  
 Av. EJERCITO 4 DEUSTU. Tf: 447 97 75

# anaitasuna

Bizkaia  
 hamabosterokoa  
 ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

**Urteko abonamendua:**

Bertorako .....	1.000 pezeta
Latin Amerikarako .....	1.150 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako .....	1.300 pezeta

**Ale bakoitza:** 50 pezeta

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide hontara:

**ANAITASUNA**

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

**Izen-deiturak** .....

**Bizilekua** .....

**Herria** .....

**Probintzia** ..... **Tel** .....

# elkar rikuska FEDERIKO KRUTWIG-I GALDEZKA



*Bergaran, Euskaltzaindiaren Biltzarrean, topatu genuen Federiko KRUTWIG. Krutwig-ez zer esan, ordea? Aipatu, maiz asko aipatzen badugu ere, aitortu beharrean aurkitzen gara ezer gutxi ezagutzen dugula. Eta horrelako gizonek badute zer esanik Euskal Herrian. Horregatik, hain zuzen, zer esana due-lako, ezer gutxi ezagutzen dugulako, pentsatu genuen ANA-TASUNArako elkarrizketa bat eskatzea.*

*Ezina gertatu zen, ordea. Eta elkarrizketa behar zuena elkarridazketa bilakatu zen. Galderak elkarrizketarako, kaseta-rekin grabatzeko, prestaturik zeuden eta zeuden bezala igorri genizkion erantzun zitzan. Berak ere, agindu bezala, erantzunak idatziz bidali zizkigun, eta guk, bai GALDERAK eta berdin ERANTZUNAK bere hortan publikatzen ditugu.*

*Badu besterik Federikok, beste zer esanik. Ez zioten alferrik BAULA deitzen! Elkarrizketa bat ez, liburu bat baino gehiago beharko litzateke, agian.*

Anzitasuna, 1.—Federiko, atzerrian hainbat urte igaro ondoren, Euskal Herrira itzuli berria zara. Etorri berri honetan, galdera bat egin nahi dizuegu elkarrizketari ekitean: Nola aurkitu duzu Euskal Herria? Zein inpresio sortu dizu? Aldaketa handia somatu al duzu alde egin zenuenetik?

1.—Neuk neure orhoitzapenean dudan Euskalherria, orain ikhus dezakedana baino garbiagoa —hau da pozoinik gabeagoa— zen. Nire aburuz hiririk asko handitu da, dudarik gabe behar zen baino gehiago.

A., 2.—Nahiz zeharo baztertua egon komunikabide ofizial eta ez-ofizialetatik, "VASCONIA" zure lana dela-ta, aski ezaguna zinen euskaldunen artean. Nahiko mitiko izan zara gure artean, begi meko mitoa batzuentzat, ez hain onekoa —adar okerraren mitoa—, beste askorentzat. Zer harrera egin dizu jendeak? Zer somatu duzu beraien-gan zu lehen aldiz ikusi zaituzte-nean?

2.—Orain-arte ez dut jenterik asko ikhusi. Ez dut euskalzaleak baizik ikhusi... Hortakotz ez dakit zein izanen den bertzeen harrera. Euskalzaleena gehienetan ona izan da.

A., 3.—Urte asko igaro dituzu atzerrian. Atzerrian zeundela idatzi dituzu hainbat lan, izan dituzu hainbat harreman, ibili zara hainbat lekutan... Dudarik ez, ba duzu zure ibilaldi luze horretan liburu trinko bat idazteko hainbat esperientzia. Hara: Nondik nora ibili zara? Zer harreman izan duzu euskalkide, herrikide, herbestekide, borrokakide eta beste hainbat jenderekin? Zertan aritu zara hainbat urtetan? Zeintzu lan dituzu aipagarrienak?

3.—Hogei ta sei urthe kanpoan egona-naiz: gora-behera: 3 urthe Parisen, geroz 6 urthe Alemanian. Berriro itzuli nintzen Euskalherriat, eta 3 urthe Biarritzen bizirik izan naiz. Frantziako Gubernu "demokratikoak" ohildu nindue-nean Belgiarat joan nintzen eta henen orain-arte dornizilaturik egon naiz. Bainan bitartean hirur-ezpa-laur urthe Erroman egon naiz, geroz zazpi hila-bethe Algerian, zortzi hilabethe Aosta-ko Haranean (Harpetarroan) eta berri-ro Belgikan.

—Lehen urthe hoietan frantsesez roman izeneztatzen den literatur obra luze bat izkiriatzan ari naiz.

A., 4.—Zu hemen ikustean, Federiko, galdera bat sortzen zaigu: Zer asmokiri etorri zara? Geratzeko asmotan?

4.—Dudarik gabe hemen geratzeko asmoaz ethorri naiz... bainan hunen egiteko zeintzu diren nitzako possibilitateak ikhertu behar dut, ezen gauza bauza bat da nahiz, eta bertze gauza bat, nire gurari hunen bethetzekotz behar diren kondizione oikonomikoak.

A., 5.—Herriratzean, ordea, Bergaran azaldu zara, eta ba dirudi zure etorrerak ba duela zer ikusirik, Euskaltzaindiaren Biltzarrekin. Egia al da hori? Zer ikusi duzu Biltzarre horretan? Nola iruditu zaizu? Zer iritzi duzu?

—Denok dakigu zeu zarela euskaltzain zaharrenetakoa, ez adinez, bainan bai postuz. Bestalde zure herbesteratzeak ba du zer ikusirik euskaltzaindiarekin eta Villasanterekin ere: Noiz izendatu zintuzten euskaltzain? Nolaz? Nola zegoen orduan Euskaltzaindia? (zer jende, giroa, lanak...). Garai hartako Euskaltzainditik oraingora zein diferentzia somatu duzu?

—Zuk zeuk sartu zenuen Villasante Euskaltzaindian: Zein kriterioz baliatu zinen Villasanteren sarrera eskatzeko eta bultzatzeko? Beste zer jende sarrerazi zenuen (zer asmotan)?

—Zure ihesak ba zuen Villasante-  
ren sarrerakin zer ikusia. Nola gertatu zen hura? Zure ustez, Federiko, posible ote gaurreguri halako hitzaldi eman ondoren, halakoak bota ondoren, etxean lasai geratzea?

5.—Ez naiz ethorri expreski Bergarako Biltzarrea egun hauetan egiten zelakotz. Kasualitate hutsa da. Hala-ere Biltzarrea antolatzen bait zen, horra joaiteko asmoa bethi eduki dut.

Biltzarre huntan euskararen izkiri-  
tu batasunaren eratzeko behar den lehen basia, puntu askotan egiten zela ikhus nezakean. Behar bada, ba dakizu, ni nieu bethi laburdara klassikoaren alde egon naizena; bai eta orain ere hunela uste dut. Bainan bethi pentsatu ukhan dut, hizkuntza baten izkiriatu batasuna mailaka ta pausuka egiten zela. Hunela bada, duela hogei-ta zortzi edo gehiago, hemendik ihes egin baino lehen Akademian ere euskararen izkiriatu batasunerat heltzeko egin behar ziren urrhatsak proposatu nituen. Neuk bethi izkiriatu batasunari buruz izan naiz, zeren-eta nire aburuz mintzatu euskal hizkalkiak, batez ere herrietan bizirik gorde behar direla pentsatu ukhan bait dut. Hortakotz orduan proposatu nuen:

a) ezen euskalki guztietan laburdara klassikoan erabilten diren hitxe guztiak izkiriatu behar direla; b) ezen geroagoz iratzi hizkalkietan ere geroago ta gehiago laburdarazko formak onhartu behar zirela, eta c) ezen azken-helburua bezala laburdara klas-

sikoa izkiriatu hizkuntza bezala euskaldun guztientzat onhartu behar zela. Beraz Akademiak orain proposatzen duen "batuara", azken helburu horren ardiestekotz urrhats handi bat da. Akademiak aholkuak eman behar ditu, Euskaltzaindia hizkuntza batuaren eratzekotz sorthu bait zen. Beraz Bergaran lan eta urrhats handiak egin dituzte zentzu huntan.

Berhain, nire aburuz hizkuntza batuak ez dira eratzen mintzatu dialektuen basiaz, baizik-eta mendez-mende irazle onenek aphaillatu ta egokitu duten izkiriatu hizkuntzaren bidez. Dudarik gabe iratzi hizkuntza batu guztiak, beren sorthegunean bethi dialektu bat izan dira, bainan geroagoz izkiriatu hizkuntza guztiek mintzatu dialektuen eretzean bethi nolabaiteko askatasuna lortzen dute. Goethek erraiten zuen bezala, literatur hizkuntza batetan irazle genialek beren hizkuntzari dakharten genialitatea ta izpiritua emaiten derauzkiote. Hunela espainol izkiriatailleek espainarari beren izpiritua eman deraukote, eta aleman irazle onek alemanara. Hunelako aberastasuna ez da emaiten itzulpenen bidez ber hauen bidez kanpotar hizkuntza baten izpiritua ama-hizkuntzan sar-arazten bait da. Zoritxarrez euskararen literatur-historian itzulpenak nabusi dira, eta denpora berrietan batez ere espainaratikako itzulpenak. Hauen bidez euskararen izpituaren espainakuntza euskaran sartzen da.

Batez ere euskaldunen espainolke-  
ria, orain kultur hitzen problematikaz agerten da, eta hunela euskal izkiriataille ta philologuen batzuen espainolkeria ta "kolonizatuen izpituua" nabari zaizkigu. Euskaldunik asko kolonizatuen konplexuaz bethi kolonizatzaileen hizkuntza, bertze hizkuntza guztiak baino maitatzenago dute, eta orain euskarak onhartu behar dituen kultur hitzak nahi-ta-ez espainaraz duten formaz ere, euskarari ikhusi nahi lituzkete. Beren perpausa justifikatzekotz bethi pseudo-argumenduak presentatzen dituzte, hauietan batez ere "erratzasuna"ren pseudo-logika. Euskaldun hauientzat, mundu guztian kolonizatu herri guztiekin gerthatzen den araura, kolonizatzaileen hizkuntzak importantzia handiena du, eta haren aurrean aho-zabalik, belhaunikotuta, admirazionez betherik dagotza. Eta nola euskal kolonizatu hauek beren kulturto osoa espainararen bidez beretzakotu bait dute, halatan kolonizatzailearen hizkuntzari behar zaion errespetuaz emaiten deraukote, eta kolonizatzaileek beren hizkuntzaren bide kreatu dituzten kultur-hitzak, euskarari ere gaztelerazko formez izkiriatu, bai eta gazteleraren bidez fonetikoki onhartzen duten pseudo-euskararen pseudo-kultur-hitzak espainararen araura iratzi nahi lituzkete... eta Logika, Psikologia, Philosophi, Geologi iratzi-

beharrean Lojika, Sikoloji, filosofi, jeologi... eta ab. euskaraz izkiriatu nahi lukete. Ez dakite mundua osoan bi hizkuntza baizik kultur-universaleko hizkuntzak ez direla, hau da, bertze hizkuntza guztiak ama-hizkuntza bezala duten pertsonen kultur-arazoetan ari izatekotz, nahi-eta-ez bilingualak izan behar dutela. Bi hizkuntza hauk, angelara ta alemanara dira. Mundu osoan publikatzen den osotasunean: angelaraz % 35 eta alemanaraz % 17,5 publikatzen bait da... Bertze hizkuntzetan proportzionaek hunela dagotza: Errusiko hizkuntza guztiak % 14, frantsesez % 7,3... eta euskal kolonizatuek hoinbertze maite duten espainaraz ez da publikatzen % 3 baizik... eta italaraz % 2. Beraz arraztasuna ez dago espainaraz bezala gauzak izkiriatzean, baizik-eta kultur-universaleko hizkuntzetan hitz hauk geroagoko praktikan ethorriko zaikun forman. Baina nola gure kulturdunek beren espagnolizatu kultura espainararen bidez eskoletan eta Unibersitate espainoletan beretzakotu bait dute, halatan ere kolonizatuak bezala aho zabalik Espainako kultur-gigantearen aurrean dagotza, eta euskaldunak bilingualak izan orde, trilingualak izan litezen nahi dute ad maiorem Hispaniae gloriam.

A., 6.—Bergarako Biltzarrea Batasuneranzko bidean egin da. Noia ikusten duzu hartu den Batasun bide hau? Zuk ba ote duzu beste proposamenik? Beste proposamenik izan arren, hartu den Batasun bidea hartu delarik, Lapurtera Klasiakoa bazterturik geratu da egungo hizkuntza "standard" mailan. Onhartzen al duzu hori?

6.—Neuk lehen bezala laburdara klasiakoz irazten dut. Orain arte Akademiak hizkuntza standard baten basia baizik ez du proposatu, eta bertzerik ere ez dezake egin. Standard-hizkuntzak nehoiz ere ez dira literatur hizkuntzak, literatur hizkuntzetan bethi hizkuntzako nivelen ugaritasuna dago. Hauien erkatzean philologuen bidez kretzean diren standard hizkuntzek ikhuspuntu literario huntan praubezia ezin-bertzea dute. Egiazko literatur hizkuntzak ez dituzte philologuek eta literatur kritikariek moldatzen, baizik eta zerbait erraiten duten eta zerbait erran ahal dezaketen irazle onek. Zoriturrez orain-arte euskal irazleek beren euskal lan originalaz gutti erran dute, euskararen bidez munduari eman deraukoten mezua hoin ttipia izan da, non ia ia zero izan dela erran bait ditek.

Behar bada gauzak hunela bait dagotza, euskararen literatur historiak izkiriatu ditutenek, euskal obren kritika artistikoa egin-orde, ia kritika philologikoa baizik egin ez dute, eta literatur


# elkar ilkuska

obra batetan agertzen den mezua, hau da zera, kritikatu ta komentatu-orde, bethi nola-delakoan eta kanpokeriaz ari izan dira. Baina kontenuturik ez dagoenen, forma soila kritikatzeara phantasma batetaz ari izateka bezala da. Kritikariek zera ahanzten dutenetan, kontenuturik ez dagoela pentsatu behar dugu... eta hemendik behar bada, euskal literatur obrarik gehienak irakurtzeko egin behar den sakrifizio patriotikoa dathorkigu. Eta kontenuturik gabeko obra baten "nola" delakoa kritikatzenean... phantasmei buruz mintzatzea bezalakoa da, kanpoko simpleskerietan eta jathorrismuen bilha ioaiten den kritika baizik ez da.

Beraz funtsean, euskararen literatur hizkuntza batuaren bidean Akademiak aholku onak eman ditu, baina hau soilik etapa bat baizik ez dira, egiazko batasuna balore handiko obra literari bidez kretzen da. Hauien erkatzean philologuen eta kritikarien lanak huntza bezalakoak dira, egiazko lanak zuhaitzak direlarik. Kritikarien lanek egiazko kretzaileen lanak parasitatzenean baizik ez dute egiten, eta hunela herri baten izpirituzko alhorrean bizkarroiak dira.

Literatur-hizkuntzek, eta batez ere gerozagoz heien basiarenean gainean kretzen diren koineak, ba dute bertze kharakteristika bat: prosa hizkuntzak dira. Halakotz euskararen literaturaren historian, XIX mendeko prosa ekhoizpena ikhertzen ba dugu, eta batez ere XX mendeko lehen erdian, euskal literaturan izpiritu bigote batetaz txotxolokeriak nabusi izan direla nabari zaiku. Zorionez "arbasoen santukeria" hau desagertzen da, eta haren orde egiazko literatur bat piskanaka sortzen ari da.

Nire aburuz Akademiak aholkatzen duen oraingo batuara, ez da izanen ethorkizuneko literatur euskararen hizkuntzako nivel bai baizik, oso beharrezkoa zeren-eta oraiko euskal gizartearen bilhakatzearnean exponente bat bait da. Batuara epokha huntako industrailizatu hirien hizkuntzaren basia izanen dateke, eta hauk bezala, ezin-bertzez, gazpakoa izanen dateke... Hunelako hizkuntzari eretzean egiazko literatur hizkuntzak bethi hizkuntzako nivelik asko ditu, eta edukazioe baten symbola behar du izan. Hizkuntzako nivel hauk asko dira: populu-hizkuntza, argota, hirietako hizkuntza, standard-hizkuntza, profesioenean hizkuntzak, kulturduen hizkuntza, snobb-mintzoara, paper-hizkuntza (autoritateekilako formak),




eta a. Nivelen gabeko hizkuntza basic English bezalako standard hizkuntza gazpakoa dateke. Eta nivel hauietan guztietan bertze edonun bezala bethi importantena gizartearen buruaren nivelgaraiarenena da, kultur baten symbola ledin izan.

Ni Euskalzaindian sartu nintzeanean, hamabi euskalzain oso baizik ez ginen, hauietan orduan Euskalherrian Azkue, Urkixo, Bon. Etxegarai, P. Lhande, Oleaga, Irigaray zegozen...

Neu Akademiaren sartu nintzen Azkueren proposamenduaren bidez. Urthe batzuek geroagoz Seminario jauna ere sarthu zen. Jaun hauxe batez ere sartu zen, Akademiaren aldakuntza batzuen egiteko beharrezkoa bait zen. Espainako gerlaren ostean Bizkaiko Diputazioeak Azkueri Akademia berphiztu behar zela erran zeraukon, baina kondizione batzuez: frantses euskaldunak ez konvokatzea eta atzerriara ihes egion zuten euskalzainak substituitu behar zirela erranez.

Urthe batzuek geroago Akademiak niri Akademiaren berphizteko egin behar ziren proposamenean aurkezteko enkargua eman zerautan. Orduan neuk informe bat presentatu nuen. Hunen araura neuk puntu hauk proposatzen nituen: a) Nola lpharraldeko euskalzainen ez konvokatzeko aholkua, ahoz baizik eman ez bait zen... haren ignoratzea. b) Atzerreirat ihesi egin zuten euskalzain zaharren postuak tituludunei konfirmatzea. c) lpharraldeko euskalzainen numeroa 3/tik 6/raino goratzea. d) Euskalzain osoen numero 12/tik 18/raino goratzea. e) Postu hauien bethetzekotz neuk izen hauk proposatu nituen: R. Lafon, Mgr. Jean Saint Pierre, P. Laffitte, M. Lekuona ta L. Dasance (Hauietarik batzuek euskal Akademiaren laguntzailak ziren).

Urkixo hil zenean, neuk ere proposatu ukhan nuen, orduan dano Euskal Akademian trabailu-hizkuntza bezala erabiltzen zen erdararen orde, euskara erabiltzea.



*Nire proposamendu hauk onhar-tuak ziren... eta jaun hoik hunen araura euskalzainak bilhakatu ziren.*

*Urkixo jauna hil zenean, neuk ere proposatu ukhan nuen, orduan dano euskal Akademian trabailu-hizkuntza bezala erabiltzen zen erdararen orde, euskara erabiltea. (Lehanago euskaltzain batzuek euskaraz mintzatzen ez bait zekiten: halatan Campionek, Uki-xok, Aita Olabidek... eta a.).*

*Geroagoz neuk ere Gorostiaga aphezaren kandidatura proposatu ukhan nuen bai eta Villasante aphezarena. Neuk ihes eginaz geroz bertze batzu sartu ziren hauietan Arrue, Loiendio, Mitxelena... eta . eta a.*

*Nire ustez gaur hamasei urthe duela nik emandako hitzaldia bezalako orain posiblea lizatekela uste dut. Neuk neure hitzaldian ez nuen ezer ere Statuaren kontra erran, baizik-eta Euskalherrian bere legeak eta arauak bethetzen ez zituen kleroari; Erromako legegintza hizkuntza vernakularien politikan orhoit-crazi neraukon.*

**A., 7.—Bukatzeko, zein lan duzu orain eskuartean?**

*7.—Laur-ezpa-bortz urtheak danik euskaraz roman luze bat izkiriartzen ari naiz. Dakizun bezala espainaraz ez*

*dago "roman" delakoaren itzultzeko hitza. Espainarrek, Hegoi Amerikan ere, soilik novelak izkiriatu dituzte. Novela batetan soilik biziaren episodio bat kontatzen da. Romana bertze gauza da... askozaz luzeagoa, bethi bizi-tzaren konzepzione osoa argitzen da. Novelak gora behera 100 edo 200 plaumetakoak izaiten ohi dira... Romanak askozaz luzeagoak dira, neuk nire sketschean ba ditut 3.000 plauma baino gehiago izkiriatu. Behar bada dathorren urtharrilan nire roman hunen publikazionea hasiko da. Haren izena Belatzen Baratza da. Geroagoz itzulpen bat eginen dut: El Jardín de los Halcones izenaz... pentsatzen dudan bezala 9 thomu izanen dira: thomuen izenek hauk dira: 1.<sup>a</sup> Mikelditarrak; 2.<sup>a</sup> Lodge-of-Jakim-khideak;*

*3.<sup>a</sup> Ostelizako Gaztelua; 4.<sup>a</sup> Ortziren Zaldiak; 5.<sup>a</sup> Argiaren Mendia; 6.<sup>a</sup> Tulako Haitzkarbunkula; 7.<sup>a</sup> Harbelnoren Thesaura; 8.<sup>a</sup> Zapaltz-nautak eta 9/garrenaren izena orain ez dut ibenl.*

*Lerro ttipi batzuetan ezin erran dezaket, zer den roman hunen gaia... handiegia bait da.*

*Bainan hori baino lehen bertze lan bat GARALDEA izenaz argitaratuko dut, behar bada dathorren Gaboentan...*

A. Ezkizabel



# EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.   
(2.000 a 100.000.) \_\_\_\_\_ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

**Ordaintzeko era**

Giro n.º \_\_\_\_\_ Cuenta corriente n.º \_\_\_\_\_

Bankoa \_\_\_\_\_

Deitura \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Hiria \_\_\_\_\_ Probintzia \_\_\_\_\_

**egin**

**HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.**

# EMAKUMEEN

Aurten, Nazioarteko Zinemaldian, emakumeek eginiko filmekin ziklo bereizi bat eratu dute Donostiako Asanbladan lan egiten duten feministek.



**ANAITASUNA.**—Emakumeen zinema bereizirik agertzea, ez al da geure burua “guetto” baten barrura zokoratzea?

**FEMINISTAK.**—“Guetto”-an gaude, zokoratuak gaude... hori errealtate bat da. Eta “guetto” horretatik irteteko, gure nortasunaren adierazpena berreskuratzeke, bide guztiak erabili behar ditugu. Zinemaldi honek, merkatal bideetik etorriko ez zaizkigun emakumeen hainbat filme ikusteko aukera eman digu eta honetaz baliatzea positibotzat jo dugu.

**A.**—Emakumeek eginiko filmak ala filme feministak?

**F.**—Emakumeek eginikoak, nahiz eta ideologi mailan feministak ez izan. Hala eta guztiz ere, kontzientzi aldetik feministak ez izan arren, zinemaegile emakumeengan, filmetan beste ikuspegi bat erabiltzen dutela pertsonen arteko harremanak aztertzean, nabariki egiaztatu dugu.

**A.**—Zeintzuk esan daiteke direla bereiztasun hauk?

**F.**—Batetik ritmoa, normalki ikusten dugun filmetakoa baino askoz ere geldiagoa. Pertsonaien izakeran gehiago sakontzeko aukera emanaz, denbora

luzeago bat ematen digutenez. Hau, Chantal Akerman-en “Jeanne Dielman” filmean oso nabari izan zen. Hiru ordu baino gehiago egon ginen Jeanne-k bere bizimodu aspergarria eta monotonoa azken xehetasuneraino nolaz eramaten zuen ikusten, eta handik irtetea bizimodu horri gorroto bizia zeniola, fisikoki sentitzen zenuen.

Marguerite Duras-en “India Seng” filmenean ere ritmoa oso geldia da, eta honetan, musikak, fotografiak, dantzaren mugimenduak... estetiko plazerrera eramaten zaituzte, sensibilitate fin batez.

**A.**—Humorea, nola erabiltzen dute emakumeek?

**F.**—Gehienetan ironikoki eta goxoki. Agresibitatearik ez da nabaritzen normalki, eta humorean, behin ere ez. Nelly Kaplan-ek bereiziki humorea ere erabili behar dela pentsatzen du, eta ondo lortu du bere “La fiancée du pirate”-n, matxismoaren baloreak eta bere moralkeria faltsuak irrigarri utziaz eta horrela kritikatuaz.

**A.**—Beste filme interesgarririk?

**F.**—Marta Meszaros-en “Adopción” eta “Bederatzi hilabete”, emakumearen problematikaren gain. Eta gai honetan

ere, Giovanna Gagliardo-ren “Maternale”, Helen Solberg Ladot-en “La doble jornada”.

Helke Sander-en “Reduper”, Alemaniako egoeraren azterketa bat, emakumeen ikuspegitik.

Agnés Varda-renak...

Mirentxu Loyarte-ren “Irintzi”, filme bezala oso ona da.

Liliana Cavani-ren “I canival”-n agertzen den simbolismoa oso emankorra dirudigu...

Agian, filmak horrela aipatzeak ez du gauza handirik esaten eta azterketa sakon bat egin beharko litzateke, banan banan hartuz.

Hau, emakumeok filme hauetatik jaso dugunaren erakuste bat da, baina zinemaegileek, zer pentsatzen dute?

Italiar, frantziar, errusiar, hungariar, suediar, espainiar, norvegiar, belgiar, txekoslovakiar eta danimarkar estatuetatik zenbait emakume zinemaegile etorri zitzaigun beren filmak presentatzerako. Emakume hauen asmoak, ideak, ezagutzeta ondo etorriko zaigu beren filmak hobeto uler ditzagun.

Irailak 13, hauetako emakume batzuekin elkar hizketa bat egiteko aukera izan genuen. Mintzatu ziren zinemaegileak hauk izan ziren:


—Marta Meszaros (hungariar estatukoa). Lehiaketa sail ofizialera “Olyan, mint otthon” filma presentatu du. Emakumeen ziklora bi ekarri ditu: “Bederatzi hilabete” eta “Adopción”.

—Larisa Tchepitko (errusiar estatukoa). Bi filma ekarri ditu: “He-goak” eta “Igoera”.

—Pilar Miró (espainiar estatukoa). Filma hau komertzial aretoetan ikusteko aukera izan digu jadanik.

—Cecilia Bartolomé (espainiar estatukoa). “Vámonos Barbara”-ren egile.

# ZINEMA DONOSTIAN



–Guiliana Berlinguer, italiar zuzendaria.

–Klara Bruckner (alemaniar estatukoak). “Reduper” egin zuen taldeko partaide.

–Mirentxu Loyarte (Euskal Herrikoa). “Irrintzi” filma egin du, Bilboko “Akelarre” taldeak eginiko obran oinharriturik.

Izulpun problemak zirela eta bestalde ordua oso egokia ez zelarik, elkar hizke-la hau ez zen guk nahi bezain luzea izan, baina hala eta guztiz ere positibotzat jotzen dugu. Azaldu ziren iritziak bi taldeetan sailka ditzakegu: batetik, gizarte honetan emakume bezala sufritzen dugun egoera, herri bakoitzean bere bereiztasunak dituelarik eta bestetik, zinemak, espresabide bezala, emakumeen eskuetan zer adierazten digu? Gure zapalkuntzari dagokionean, sozialismoan (?) bizi diren herrietako egoera azagutzea bereziki interesatzen zaigumez, Marta eta Larisari egin genien galdera.

Martak zera esan zigun: Hungariako egoera oso desberdina dela, herri kapitalisten aurrean.

“...% 90 emakume etxetik kanpo egiten dute lan...”, etxean ere bai, noski.

“...zinemaegile batentzat adibidez, berdin da emakume edo gizon izatea, posibilitate berdinak baitituzte...”, “egitura mailan ez dago desberdintasunik”.

Familiaren egitura indartsua al da Hungarian?

“Bai, tradizioak indar handia daduka, han neska batek, ezkondu gabe ezin du amerik eduki...”. “Nere “Bederatzi hila-bete” filman agertzen dudana neska mitikoak da, ez dago horrelakorik Hungaria-ko errealtatean...” Filma honetako neska lan egiten du, estudiantu ere bai eta zainera bi ume eduki ditu ezkondu gabe, independentzia ez duelako galdu nahi. “Egoera hau aldatu beharra dago, baina filmetan ez dut esaten “nola”, neuk ez jakidalako”.

Larisak, ironia pixkat jarri zuen erru-siar egoeraz mintzatzean. “Han, emakumeek, “gizonen” lanak egiteko eskubide osoa lortu dute, eta oso ondo egiten dituzte gainera, bai gogorrenak ere... eta gero, etxean, “emakumeen” lanak ere egiten dituzte, inongo laguntzarik gabe. Gizonak oso pozik daude, emakumeek lan guztiak egiten dituztela ikustean, baina fisikoki eta moralki ari dira nekatzen eta egoera hau oso arriskugarria da familiaren egiturarentzat...”

Larisak ere, gainestrukturan berriz berdintasuna dagoela pentsatzen du. Baina, Ceciliak egin zuen galdera hau gelditu zen: “Ekialdeko herrietan, zenbat emakume daude, ekonomia, politika eta beste alorretan postu garrantzitsuenak betetzen?”. Garbi gelditu zaigu lan egiteko eskubidea lortu dutela, baina, gizonen eta emakumeen soldatak berdinak al dira? Ez genuen hau eta beste puntu asko sakontzeko denborarik izan.

Zinemari buruz, Pilar-en iritziz emakume batek zinema egiten duenean ez du derrigorrez emakumearen problematika ikutu behar eta ikutzen baldin badu, ondo ala gaizki egin dezake, gizon batek ikutuko balu bezalaxe. Ceciliak berriz

ez zuen berdin pentsatzen, “gizonek ez dute inoiz gure prolematika ikutu, emakume izatea funtsezkoa da filmetan gure bizitzaren prolemak adierazteko”.

“Guk, emakumeen artean egin dugu lana REDUPER egiteko eta esperientzi hau atara dugu: gauzak ez dira berdin ateratzen kalitate mailan geure artean egin edo gizonekin ere lan egiten badugu. Kreativitate gehiago adierazten dugu emakumeak bakarrik gaudenean, estetikaren zentsu berezi bat dadukagu...”

Mirentxuk egin duen filmak ez du emakumearen problematika ikutzen, biazik eta Euskal Herrian sufritzen dugun errepresioarena, baina emakume izateak beste ikuspegi bat ematen diola egileari pentsatzen du. “Gizonek diotenez, emakumeok horrelako “gogo berezi” bat omen dugu eta igual behingoz asmatu egin dute eta hala da!”

Guilianak alde egin behar zuen eta bere agurrean, emakumeok ez garela bakartu behar esan digu. “Gizarte osoa aldatu behar dugu, gizonen aldaketa ere beharrezkoa da, ez gurea bakarrik... konturatu daitezela BIZITZEAK nolako esannahi zabala eta ederra duen!”

Itziar Urtasun

# ERREPRESIOA ESTATU DEMOKRATIKOETAN

## I. Demokrazia ala polizi estatua

"Demokrazia handiago, polizia ugariago", horra ministro batengandik entzun dugun paradoxa, eta Pariseko poliziaren presentzia astuna (nonnahi eta noiznahi) nabari ondoren, Martin Villaren hitzen egitasuna frogatzen genuela zirudien. Baina, zori onez edo txarrez, gauzak guztiz bestela direla pentsatu behar...

Guztiok, diktadurapean hainbat urtetan bizi izan garenok, batez ere, luzaro onhartu dugun ideia izan da, herri aurreratuetan, estatu kapitalistetan, ekonomi krisialdi bat edo ustegabeko gertaera larriren bat izan ezik, ez zela diktaduretan bezalako edo antzeko errepresiorik gertatzen.

Gure ustetan, demokrazia kapitalistetan gertatzen zen zapalkuntza ideologi nagusigoan eta politik aparatuaeren faltasutasunezko maneian oinharritzen zen, eta agintearen bortxaketa politiko eta egintza ezlegal eta extralegalak salbuespenezko gobernamentuetatik sortzen ziren.



Kissinger, Nobel Bakearen Saria.

Hala ere, azken aldi honetan, informazio multzo handi batek hipotesi eta aurreritzi hauk ukatzen eta ezeztatzen dituzte. Demokrata izeneko kapitalist estatu guztietan hauteskunde eta parlamental zeremonia eta ritualen atzetik, zerbitzu ofizialen sare trinko zabala inplikaturik aurkitzen da, ekintza politiko legeletan diharduten hiritar soil, alderdi eta mugimenduen eskubide demokratikoak bortxatzeko, urtetako azpi lan luzean.

Informazio horiek diotenez, polizi estatuaren ekintzak, burokratikoak eta handiro, epe luzerako helburuak begiztatuz, pentsatuak eta ixilki beteak izan ohi dira, eta egun herri kapitalistekako eguneroko bizimodu laueko usadiozko parte bilakatu dira, demokrazia aurreratuenetan ere: USA, Alemania federalean...

Horrela, aski ongi funktuariko ekintza politiko eta bazter mugimendu subterfiboen arteko bereizkuntzak ezabatze bideetan jartzen dira, batzu bezala besteak begirapen eta espioitza zerbitzuen lanaren aztergai izan baitaitezke (horren adibide bikaina da Watergate arazo).

Ipar Ameriketean, F.B.I., C.I.A., Armadako Informazio Agentzia, Nazio Defentsarako Informazio Agentzia, Nazio Segurantzako Agentzia, Zergen Zuzendaritza, Akusazio Ganbarak, eta hainbat lekutako bertako dozenaka erakunde politiko (Chicago-ko Red Squad eta...) dira ekintza politikoen errepresio lanean dihardutenak.

Polizi aparatua asko hazi da, eta hazi den eran, bere ekintzak, informazio teknika berrien eraginez, bizkor ugaltu dira. Bestalde, erakunde publikoak ere gero eta politikoago bilakatzen ari dira: U.S.A.-n, adibidez, Funtzio Publikoaren Batzordea, Narkotikoen Bulegoa (bere lan ofizialaz gain badu eginkizun politikoa: probokatze lana), Postetako Informazio Saila, Justizi Ministergoa, eta...

Polizi estatuaren ekintzen helburua ez da besterik: nahiz edozein ezkertiarren edo sobertsibo izena jaso duen edozein talderen oposizio politikoa salatu, eraitsi, baztertu, deskreditatu, neutraldu eta ezeztatu. Ekintza hauen bidez, hiritarrek (beltzek, ikasleek,...) beren helburu politikoak eta sozialak erdiesteko dituzten eskubide demokratikoez baliatzeko ahalmena, ahultzea lortu dute.

Estatuaren errepresio aparatuaeren jomuga eta nozitzaile dira etni minoritateak, emakumeak, langileak, gazteak, ikasleak... Estatuaren errepresioa, beharaka ari diren alderdi eta mugimenduek ez ezik, bizkortzen ari direnek ere nozitzen dute.

Errepresio lana era askotakoa izan daiteke, baina, batez ere bi mailatan bana dezakegu: Errepresio legala, lege bidez, Konstituzioan edo ezarritzen dena, eta errepresio extralegala, ixilpean, legez kanpo edo legearen aurka jasanez gertatzen dena: Watergateko "Iturginak", Iruñea, Errenderi eta abarreko gertaerak.

Era batekoa edo besteakoa, errepresio bat beraren bi aurpegiak ditugu horik, eta bata bezala besteak demokrata izeneko aparatuaeren benetako nortasuna agertzen digute.

## II. Nazio segurantzaren dotrina

Estatu kapitalistetan eskubide demokratikoez etengabeko higadura eta erosioa jasaten dute, eta, hala ere, beharturik daude estatu hauetako agintariak ordenu politikoa sostengatuko duten sinespenak eta dogmak etengabe berritatzera.

Klase kapitalistak Mendebaldean duen nagusigoaren ideologi oinharria demokrazia idealen eta hiritarren hauteskunde eta kontrol eskubideetan aurkitzen da. Baina, egitura ideologiko hori, hain zuzen, kapitalaren eskubide abantailatsuentzako desafio eta amenazu kezkagarri bilakatzen da, unetik unera, horrela, klase kapitalista eta honek sorturiko erakundeentzako, polizia eta armadarentzako, oztopo bilakatzen delarik. Horregatik, Estatu Kapitalista etengabe saiatzen da beste hainbat ideologikoez aurkitzen eskubide demokratikoen aplikapena eta erabilpena mugatzeko eta klase egitura osoaren elkarren arteko barne kohesio eta atxikimendu lokarriak sortzeko.

Nazio Segurantzaren dotrina izan da, Estatu Batuak nazional eta sozial iraultzei aurka egiten hasi zirenetik —orain 30 bat urte—, barne eta kanporako errepresioa justifikatzeko gehien erabili den arazoia. Izan ere, hitz haiek klase errepresioa agertzeko eufemismo bat, hitz zuri bat besterik ez da.

Dotrina hau leialtasun ultranazionalistez eta pertsona eta politik segurantzari ezeko sentimenduez baliatu izan da. Horrela klase problemak suntsiltzen eta ezabatzen ziren —hurrupakuntza, langabezia, arrazakeria, sexukeria— pentsamolde sistema bat ezartzen zelarik, ordenu soziala onhartuz eta arazo funtsezkoentzat atzerriko estatuen aurkako Estatuko Aparatuaren indartzea ezarri.

Horrela, Estatuaren ordena soziala zalantzan ezartzen zuen oro atzerri indarren agente eta nazio segurantzarentzako amenazo bilakatzen zen.

Horrenbestez, errepresioa justifikaturik zegoen. Agintari errepresiboak eta beraien aldekoak "patriota"tzat, hertzaleztat eta legearen eta ordenaren defendatzailetzat hartzen zituzten bitartean, kontrakoak arrotziar, atzerri zale, traidore eta ez-fede ez-lege gabeko antolakunde terroristen partaide gorde sekretotzat jartzen zituzten.

Nazio Segurantzaz izeneko dotrina honen giltza "Nazio Batasun"aren eten-gabeko aipamen, berraipamen eta errepikatzean zegoen. "Nazio Batasuna", klase zuzendariak, nagusigoak, bere interesen arauera, herri eta klase zapalkuntza zeharo ahazturik eta bazterturik, pentsatzen zuena zen. Dotrina horrek argudio bikainak eskaintzen zizkien edozein moeta politiko eta sozial legez kanpokotzat salatzen. Horrela, klase oposizioa atzerriar amenazuekin parekatzen zuten, eta ez zuten inolako eragozpenik, ez trabarik, edozein barne oposizioari edonolako borroka politikoa kontrajartzeko.

Nazio segurantzako dotrina honek, opinio publikoan hedatu zituen ideia politikoak "politika autoritario, hedakor eta elitista" onhartzera bultzatzen zuten.

Nazio Segurantzaren dotrina eta polizi estatuaren hedakuntza, bigarren mundu gerlaren ondoren, biztu zen kapitalismoaren nagusitasunaren aurkako desafiari erantzuteko sortu ziren. Bero-riek esker finkatu eta sendotu zen, estatu aurreratuetan, hedakunderako hain premiazko zen nazio barne atxikimendua. Beste estatuetan, dotrina berak justifikatzen zituen munduko ditadura atzerrikoienek eta errepresiboek ere U.S.A.-rekin zituzten harremanak.

Nazio Segurantzaren delako dotrinak lagundu zion, geroxeago, diktadore askori bere boterea legeza eta legitimatuzera. Gainera, dotrina honen ondorio logikoa zen, ditadura horietan, gizartearen armadarenganako menpekotasuna.

Estatu aurreratuetan, dotrina honek nolabaiteko kohesio bat sortarazi zuen kapital eta langilegoaren artean. Diktaduratan, ordea, langilegoa zatikatzeko balio izan zuen eta, bestalde, burgesia nazionala kapital internazionalaren morroin eta menpeko ezartzeko, horrela, kontraesan nabaria sortarazten zuelarik segurantzaz eta interes nazionalen eta atzerri kapitalarekiko morrontza eta menpekotasun ekonomikoa bultzatzen zuen politikaren artean.

### III. Nazioarteko errepresioa, klase borroka eta gatazka nazionalak

Munduko ekonomia kapitalistaren ezaugarri nagusia da, gaurregun, langilegoa hedatu eta iraunkorrek eta inflazio tasaren igoera lasterrak salatzen duten krisiaren iraunkortasuna. Rezesio eta inflazioaz baliatzen da Estatu Kapitalista alokairuen mugaketa eta lanprozesuaren arrazionalizapena (despidoak,




Alemania. Langilegoaren parte baten kontrako legeria "Antiterrorista" behar balitz, langileria osoaren kontra erabil daiteke.

esplotazioaren handiagotzea) justifikatzeko.

Krisi kapitalistaren ondorio desberdinak errepresio maila desberdinak erakartzen ditu langile klasearen multzo eta zati kolpatuentzat. Ameriketako bezala Europan, kontrolak, polizi agerpenak eta espultsio zigorra eten gabe erabili dira langile atzerriarren kontra. Italian poliziak ez die bake onik eman gazte lanik gabekoei, terrorismoaren aurkako borrokaren atxakiaz. Langilegoaren maila hauen aurkako neurri hauk dira Estatu Kapitalistek eman dituzten lehen kolpeak, langileria botere kolektiboa ahultzeko eta, metatze krisi honetatik irten ahal izateko, kapitalaren ahalmena berreskuratzeko asmoz.

Estatuak, eta honen polizi aparatuek, laguntza handia jaso dute halako mugimendu sindikal batzuegandik, langileria sektore batzuen aurka. Estatu Batuetan, A.F.L.-C.I.O. delakoaren zuzendarigoak, bere ekintza guztia laneko arazo hertsietara eta alokairu arazoetara mugatuz eta Estatu Inperialistaren atzerriarekiko politika guztiz onhartuz, neurri protekzionista bezain xobinistak eta beste herrietako langileen aurkakoak bereganatuz, langilegoaren mugimenduaren batasun oinharriak azpijaten eta botatzen dihardu. Jarrera hauek bere ondorio nabarmenak erakartzen dituzte: atzerriko diktadura antikomunistei eskaini zaizkien sostenguak,



langileria morroian eta kateaturik dagoen herrietara, zuzendu ditu amerikar kapitalak; legez kanpoko egoeran zeuden langileen aurkako kanpainak langile berorik alokairu eskasagoak onhartzera behartu ditu, horrela alokairu guztien beherako presioa sortzen zelarik; alokairu kontrato berezietaz gain beste ezeren alde borrokatzeko gauza ez direlarik, sozial zerbitzuen atzerapena eta iritzi publikoaren langileekiko sostenguaren beherapena erakarririk dituzte. Ondorioa hor dago, egunetik egunera zailago da langile amerikanoa antolatzea: langile sindikaturikoen partea 1940 inguruko % 40-tik 1978-eko % 20ra pasatu da.

Orainarte, Europako burokrazia sindikalek eraman dituzten politikak ez dira Estatu Batuetakoak bezain atzerakoi eta bigun izan, baina ba dirudi bide berdinari ekin nahi zaiola. Rezesioaren aurrean, alderdi sozial-demokrata eta komunistetako zuzendaritzak, dagoeneko, despido eta alokairuen blokeatzea, eta beheratzea ere, onhartu beharrean aurkitu dira.

Alemaniko sozial-demokratek 500.000 langile atzerritarren expulzioa apoiatu dute krisi ekonomikoaren ondorioak leuntzeko. Suizan, Frantzia antzerako jokuak egin dituzte eta egiten dituzte eta, gero eta nabarmenago, gerriko hestutzearen politika onhartuarazten saiatzen dira. Ezkertiar alderdiek ez dute kontutan hartzen gazte eta ikasleen

langabeziaren problema. Bestalde lege errepresiboak onhartzen eta sostengatzen ari dira langabeziaren biktima eta nozitzailen manifestapenen aurka. Egunetik egunera nabarmenagoa da, burokrazia horik langile olde eta masetatik urruntzen eta apartatzen doazen heinean, Estatu Kapitalisten jokuan erortzen ari direla, eta alderantziz... Langile klaseko parte baten interesak hobeto defendatzeko beste baten interesak abandonatzeko prest dauden horien jokabide horrek errepresioa gogoragotzeko baldintzak eta bideak jartzen ditu. Gaurregun langilegoaren parte baten aurka legeria errepresioa eta "antiterrorista" darabilen Estatu Kapitalistari errazago izango zaio bihar lege hori berak beste partearen kontra ere erabiltzea, ekonomi krisia larriagotzeko balitz edo langileriak, libertate demokratikoen bila, masa borrokari ekingo balio.

Estatu Kapitalisten arteko lehia eta norgehiagokaren hestuagotzeak, energi krisiak, mundu zeharreko baseko oinindustriaren produkzio kapazitate soberakoaren pilatze izugarriak, merkatu eta errekurtsioen bereganatzeko borrokek estatu kapitalista guztiak behartzen dituzte alokairuen kostuak tipiagotzeko ahaleginak egitera, eta horrela nolabaitko abantailak lortzera.

Estatu kapitalistaren eginkizuna gero eta nahitaezkoago, ezinbestezkoago, gertatzen da hedakundearen kondizioak

erabakitzerakoan. Langile burokraziak indar duen lekuetan, langilegoaren gehiengoa zuzentzeko gauza bada, legeria errepresioa beste batzuen aurka zuzenduko da: sindikatu ezados, ezker puntako, nazional minoritate, e. a. horien aurka. Burokraziak indarririk ez badu edo langilegoaren kontrolrik ez duenean estatuaren Segurantzaren Aparatua bere errepresio harma guztiakin marxian jarriko da inolako erreparorik gabe.

Horrela, gobernamentu politiko demokratikoetan krisialdi larri bat sortzen denean, demokraziaren egitura formalak gorde eta mantena daitezke, baina sistema politikoaren mamia eta edukia gero eta gehiago mugatuko ditu aparatuen burokratikoak; baldin eta masa mugimendu demokratiko batek errepresio sozio-ekonomiko eta errepresso politikoaren arteko loturak salatzen ez baditu. Horretarako lehen baldintza nazio segurantzaren dotrinaren desmitifikatzea da eta honen egiazko klase errepresioarako lanabes funtzioaren salatzea.

Populu indar demokratikoen kontraerasoak Estatu "fuerte" baterako mobilizapenerako deiak salatu eta borrokatu beharko litzuzke. Eskubide demokratikoen aldeko borroka langile klasearen eta, batez ere, gehien sufritu duten sektoreen (lanik gabeko, gazte, nazional minoritate, eta langile atzerritarren) eskubide berezien defentsa zehatz eta bizkor batekin osatu beharko litzateke.

# BERTSO BERRIAK KONSTITUZIOARI JARRIAK



Txirrita. Aintzinako euskaldunek barre egiten zioten bertsotan Konstituzioari.

Urrun samar geratzen den Udako Euskal Unibertsitatean, hitzaldi interesgarria entzun genion A. Irigoieni. Erabili-tako gaia, pasa den mendeko konstituzio bati eginiko bertso batzuri buruzkoa zen. Orduan, Markinako herrian barra-barra kantatzen ziren bertsook. Beste egintza batzuren artean, jendeak barre egiten zion orduko konstituzioari ber-isoak kantatuz.

Urteak pasa eta ez dirudi gauzak gehiegi aldatu direnik. Aurten ere, 1978. urtean, Konstituzio arrotz bat inposatu-ko digute euskaldunoi nahi eta nahi ez, Espainiako estatuan minoria garelako. Beraz, demokraziaren izenean —eta

ezetz esanik ere— konstituzioa onartzea, beste erremediorik ez zaigu geratzen. Burruka egiteaz aparte, hiru posibilitate moeta ditugu inposizio bortxatu honen aurrean. Negar egitea, serio geratzea eta barre egitea. Eta prezio berean, hau da, dohainik —ezer ez baitigute emanen—, nik neuk barre —eta burruka, noski— egitea proposatzen dizuet.

Eta barre egitea, euskaldunon erara. Aintzinako euskaldunek bertsotan egiten zioten barre konstituzioari. Zergatik ez dugu guk ere antzera egiten? Ondo lego-ke, doinu herritar ezagun batez, mitine-tan eta kaleetan horrelako bertsoak kan-tatzea: Zer esanik ez, jende guztiak

batera. Zer, politikariok? Ez zaizue ideia gustatzen? Panfletoen bidez, bertso-paperak.

Horretarako, bertsolari on bati eska dakiok bertso-paperak prestatzeko ardura. Gero, propaganda egitea erraza litzateke, eta agian jendeak erraz ikasi-ko luke. Ni neu ez naiz bertsolari —afa-londo bero batzutan izan ezik, eta orduan ere eskas— eta beharbada ez nintzateke horrelako arazoetan sartu behar. Baina tiral! Hasteko, eta inor gauza hoberik egitera ausartzen den bitartean, hona hemen nire bertsoak, "Pello Josepe" kantaren doinuarekin kantatzeko prestatuak.

Konstituzio berri bat dela bertsotan goaz hastera; dauzkan "bertute" izugarriak beldur gabe kontatzen. Espainiako Madril aldean prestatu digute bera. Nolakoa den arakatzeko oraintxe dugu aukera.

Gure mendeko hirurogeita hamazortzigarrenean Espainia batu, handi ta libre estatu liberalean, Ganbara bitan bilduak dira elkartasun ederrean, Herri titikiak izorratzeko herritarren izenean.

Baletz esaten baldin badugu, erabat gaude galdurik. Euskararen aldeko kanpainak guztiak dira alferrik. Zertarako, ba, ikasiko da? Ez dugu haren beharrik, espainol denek erdararekin ba dute sobra nahikorik.

Txakur pilo bat etxe barruan gauzak daude oso bero. Horrelakorik ezin onartu berrogei urte ta gero. Tentsio handia, dugu hoiekin goiz, arrats eta gauera, martxa hōnetan bake izpirik ezingo dugu espero.

"Terrorismoa" desagertzeko asmapen originala. Lege zitalak ematen die diktaduraren kanala. Herri xehea ikaratzeko pentsatua izan dela. Besterik ezer ez dugu eskatzen: "Ken dezatela berehala!"

Langile oro ikaran dago Hauxe egoera latzal Kaleratzeak libre izango direla ez da zalantza. Krisi-denboran pobrea gaizki, ez sekula aberatsa, azken honexek ez du galduko inoiz ere bere poltsa.

Foruak ere aipatu dira baietza lortzeko asmoz. Horik berriro edukitzea bultzatuko dugu gogoz. Baina hitz hutsez konformatzeko geure Herrian ez gagoz. Askatasunerako bideak ireki ditzagun behingoz.

Oraingo bertso hau da azkena amaitu zaigu mitina. Euskal Herria beti izan da langile zintzo ta fina. Kantazaleak garenez gero, presta aho ta mihina. Guztiok batuz esan dezagun gogorki EZETZ samina.


J. R. Etxebarria

# EUSKAL HERRITIK GEORGIARA MOSKUN ZE HAR (1)

Hilabete terdi pasatu da, honez gero, Georgiatik etorri nintzenetik. Hara maiatzaren 20an heldu nintzen, uztailaren 28rako berriro etxera itzuliz. Bi hilabete eta zerbait gehiago eman nituen, beraz, bertan. Norbaitzu, dakidanez, harriturik daude nire orain arteko ixiltasunaz. Alde batetik —bizio ala birtute ote den ondo ez dakidalarik— berritsu izateko fama ongi merezia dudalako, eta bestalde, holako bidaiak, segurki, zer konda ba dukeelako.

Lagun askok, bestalde, kalean ikustean, *zer moduz Errusian?* galdetzen didate, eta nik neuk, lotsarren, zera azaldu behar izaten diet, Moskun eman nituen azken hirur egunak salbu, ez nintzela Errusian izan, Georgiako Sovietar Errepublikan baizik. Lotsaz erantzun behar, bai, Georgian ni Euskal Herritik nentorrela niotsenean, inork ez baitzidan bertan sekula galdetu *Rogoro jharth Espanetsi?* (Zer moduz Espainian?), Euskal Herriagatik baizik. Geure naziotasuna hain maite dugun euskaldunok gurea baino hobeki zaindua dagoen inorenaz ere ardura handitxoagoa eduki behar genuke behintzat.

Noan, baina, harira. Ba dut, bai, zer konda, eta, ustez behintzat, gauza interesgarriak gainera. Materialeak, bestalde, ongi gordeta dauzkat. Izan ere, egunkari bat egin nuen bertan, egunez egun, behin ere hutsik egiteke, han egindako gauza aipagarri guztiak idatziz. Orain arteko ixiltasuna bi arrazoiengatik izan da. Lehenik, etorri berritan buruan nahasirik, pil-pilean nekartzan bizipenak pixkat pausatzen utzi nahi nituelako, gauzak, lekuzko eta denborazko urruntasunaz, hobeki aztertzeke. Bigarrenik, Georgiako esperientziari garrantzia handia emanaz, haren berri ahalik eta irakurle gehienei eskaini nahi nielako. Hau, zoritxarrez ondo kontzienteki diot, ba dakit darabildan hizkuntzak berez asko mugatzen didala —zer egingo diogu diogu bai, ni neu ere, dakizuenez, euskalduntasuna hautatu dudan idazle zoro masokista horietako bat nauzue betidanik— eta horregatik, hobe neritzon bestelako oztupoak kentzeari, hots, oporrak amaitu ondoan, jendea berriz etxean zegoenean idazteari. Asmoa dut, dena den, georgiar lagunek holako bekaturik ongi merezi baitute, erdaraz ere artikuluren bat idazteko, eman eta zabal zazu horrek gure herriko eta kanpoko batzuri mesede egingo diolakoan.



Tbilisi, Georgiako hiriburua: hauzategi zaharra.



Tbilisi: IVERIA hotela.



**Bidaiaren arrazoia**

Zergatik joan nintzen? Horren berri, oso oker ez banago, bere egunean prentsak berak azaldu zuen. Georgiako Zientzien Akademiak Euskaltzaindiarekin ihaz egin zuen akordio baten bidez, euskalari eta kartvelologo arteko trukaketa bat egitea erabaki zen, hemen dik hara eta handik hona azterlariak bidaltzeko. Eta lehen deia, seguraski oker, hiri egin zidaten. Euskaltzaindiak egindakoaz, udazkenean hango bi, Yuri Zytsar eta Greta Txantladze etorriko direlakoan gaude. Ni neu, beraz, georgiera ikastera joan nintzen hara.

**Bidaiaz**

Georgiara hegazkinez joateko, Paris edo Madrileko aireportutik irten behar. Nik neuk, bisatua han egin behar nuelako, Madrilerako jo nuen. Sovietar enbasadan errazki eman zidaten baimena. Maiatzaren hogeian, larunbat goizean, hegazkineratu nintzen. Hegalaldia Madril-Mosku zen, laur ordutakoa, Luxemburgen ordubeteko eskala eginez.

Joatean ezer aipagarririk ez, gurekin Espainiatik egotziriko soviatar ingeniari espioitzako bat zetorrela ez bazen. Hori kasualitatez jakin nuen. Aurreko egunean Madrileko prentsak zioenez, soviatar ingeniari gazte bat espioia ote zeneko susmoa zuen poliziak eta, badaezpada, espainol gober-

nuak hogeita lau ordutako epea eman zion Espainia abandonatzeko. Sherlock Holmes izan gabe ere, biharamun goizean aireportuan hainbeste maleta, pakete eta lagunekin zegoen soviatar gazte hura ikustean bezperako albisteaz gogoratu nintzen. Aeroflot-eko hegazkinean ondo —Iberia konpainia-koetan, Santiago-Bilbo arteko bidaiari gertatu zitzaizkidan gertatu ondoren, berriz ez bidaiatzea erabakia baitut. Abisu guztiak errusieraz eta ingelesez ematen ziren soilki. Jan-edanak normalki, zerbitzu egokiaz. Pasaiarien artean, Tokyorako bidean, japoniar asko ziren, zenbait espainolekin.

**Moskura heltzea**

Soviatar Batasunaren hiriburura arratsaldeko bostetan heldu ginen. Aireportuaren pabilioetan bero sargoritsua zegoen, eta hainbeste turista artean erdi galduta ibili nintzen, papearak, deklarazioak etab. eginez. Zorionez bertan georgiar gazte bat zen, ene zain, Ramaz Kartvelišvili, denetan lagundu ninduen. Moskuko atzerriko aireportu internazionaletik Sovietar Batasunaren barnerako aireportura joan ginen taxiz, horretan ordubete emanez. Orduan ez ginen Moskun zehar pasatu, hiria inguratzen zuen kamino batez baizik. Hortaz, aldirietako hauzategiak ez beste ezin nuen ikusi.

Bigarren aireportuan Ramazek, nire mailetak Tbilisira, Georgiako hiriburura, fakturatu ondoren, georgiar jator gisa, gose ote nintzen galdetu eta aireportuko jatetxera eramanez ninduen, bere hitzez huskeria batzu jatera gonbidatu: errusiar entsalada (bertan "Moskuko entsalada" deitzen da), kabiart beltz eta gorria, izokin gazia, arraultza egosiak, ogi zuri eta beltza, esne-gain garratza, fruituak, etab. Edateko, noski, Georgiako xanpaina eskatu zuen Ramazek.

Ondoren hegazkinera. Aireportu hartan era guztietako jendeak ziren: errusiar ilehoriak, asiarrak, begizeiharrak, Kaukasiako jende beltzarrak, militar asko... Tbilisirako hegazkinaren zain zeudenen artera joan ginenean, zirrazko zerbaite sentitu nuen. Aurpegi haiek ezagunak egiten zitzaizkidan. Ba zen bertan, kasu, edozeinek Iribarren anaia bikitzat joko lukeen gizon gazte bat. Eta beste askok ere, bai gizonetan eta bai andretan, aurpegieraz euskaldun jatorrak ematen zuten. Eritzi subjektiboa, noski, baina enetzat harrigarria.

Soviatar Batasunean hegazkinak, ia ia, hemengo autobusen gisakoak dira, hau da, usu erabiltzekoak, eta, horregatik, beren abantaila eta huts guztiez hornituak. Moskutik bederatzietan irten ginen. Tbilisirainoko bidaiari bi ordutakoa izan zen, eta hegazkinak bizirik beteta zihoalarik, oso berria izan ginen. Tbilisira irteeraren ondoren, laldian Ramazekin neure lehen praktikak egin nituen georgieraz. Eroan handiko mutila zen, zalantzarik gabe.

Tbilisira heldu ginenean hamarrek ziren. Haize gogorrak jotzen ziren. Aireportuan, gure zain, Ilia Tabagua jauna zegoen, ihaz Euskal Herrira etorri ziren bi georgiarretako bat. Besarkada batez agurtu eta taxiz hirira abiatu ginen, Ramaz, bidean, bere etxe ondoan utziz. Hotelak Georgiari aintzinako geografo grekoek emandako izena zuen: IVERIA. Ene gela erreserbatutik zegoen. Tabaguak, jantokia ordu hartan hertsirik egongo zelako zelako aurrikusteaz, bere etxetik ekarritakoez berrafaldu nuen: entsalada, tarxuna izeneko belar gozoak, oilaskoa eta sagar batzu, Georgiako ardo gorri on batez lagundurik.

Bera joan zenean, balkoira irten eta hiria begiratu nuen, bi hilabetez ene bizitokia izango zena. Kaleetatik automobilak ari ziren oraino eta etxetan argi ugari ageri zen. Hotelaren ondoan Mtkvari hibaia linburtzen zen, ixilik, bere uretatik dirdir uherrak ateraz. Haren bazterretan Tbilisiko haizeak zuhaitzei itsas orroak sorterazten zitkien.

Xabier Kintana



Tbilisi: Metekhi-ko eliza eta Vajhtang Gorgasali erregearen irudia.



Azken urteetan giputzak izan ohi dira estropadetan nagusi. Baina bizkaitarrak ere itzartzen hasi direla aitortu behar da. Ihaz Santurtziko Sotera izeneko trainerua, arraunlari gazte eta indartsuz osotua, mailarik gorenera heldu zen. Askok pentsatzen zuten, aurten ere berdinen zuela. Baina, maila altuan egon arren, gehiago egin diote Kaiku taldeko sestaoitarrek.

Dudarik ez dago. Urte osoan zehar, seguritate handiz, Bizkaitarra trainerua nagusi agertu da Kantauri itsasoan. Eta nagusigo hori ongi merezia dute, urteetako lanaren fruitua baita. Entrenamendu gogor eta erregularraz, lan luze eta isilaz, aparteko prestakuntza lortu dute sestaoitarrek. Ez da harritzekoa, ba, inguruetako estropada-zaleak harro egotea. Zorionak eta segi aurrera!

34. hor.

Dena den, beste datu aipagarri bat dago. Bizkaian zaletasun hau asko hedatu da eta hainbat traineru berri prestatu dira. Eta hau pozgarri da, jendeak kirol honi eutsi nahi diola esan nahi du eta. Oraingo urte honetakoa bukatua da jadanik. Beraz, hurrengo urtekoa prestatzen hasi beharko da, eta prestakuntza fisikoarekin hasi, hauxe baita arrakastaren giltza nagusia.

Edozein modutan, eskari bat zabaldu nahi nieke estropadak antolatzen dituztenei. Ongi erizten diot trainerurik onenekin txapelketak antolatzea. Baina bigarren mailako traineruek ez ote dute oportunitate gehiago merezi?

**Karpov-Korchnoi edo informabideen aspergarritasuna**

*Hau bai dela luzea! Eta batzuk diote-*

*nez, datorren urtearen hasierararte egin daitezke horrela.*

*Hemengo artikuluan informabideak eduki duten jarrera kritikatu nahi dut. Anekdotez eman ohi dute informazioa. Modu honetan, egunero irakurri behar dugu Korchnoi apatrida dela, garaileak 344.000 dolar irabaziko dituela eta gaitzaileak 206.000 dolar. Hori esateko, ez ote da hobe behin bakarrik esatea eta kito?*

*Era horretako aipamenak baino hobe da, agian, zenbait iruzkin tekniko egitea. Baina horretan, edo teknikoegiak ezin dira edo ez da iruzkinik egin. Nik neurek, egia esan, ez dakit zer interes sekretuak duten informabideek, jendea horretan egunero bonbardatzeko. Munduko kampionatua delako? Bai, ongi da! Baina, jendea benetan ajedrezean jolastera*

# KAIKU NAGUSI



balizatzeko ez bada, ene ustez nork  
geraitzen duen jakitea anekdota hutsa  
da.

## Ez da kasualitatez gertatzen

Kirola eta politika ez omen dira  
nahastu behar. Hauxe da behintzat eus-  
kaldunoi behin eta berriro esaten digute-  
na. Hala ere, ba dirudi, bestek lasai  
nahasten dituztela, zeren eta gauza  
hauk ez baitira kasualitatez gertatzen:

— Ez da kasualitatez gertatzen, Atle-  
tiak Sevilla-n jokatzean era guztie-  
tako biraoak eta irainak entzun  
beharra edukitzea. Eta dena, eus-  
kalduna izanagatik, erdaraz  
dagoen kanta honek dioenez: "El  
Atleti como era vasco, todos le  
tenian asco...".

— Ez da kasualitatez gertatzen, Arra-

te taldea eskubaloizko txapelketa-  
tik expulsatua izatea.

— Ez da kasualitatez gertatzen, Aska-  
tuak taldeak era guztitako trabak  
aurkitzea.

— Ez da kasualitatez gertatzen, mun-  
du osoan zehar Euskal Pilota ize-  
nez ezaguna den kirolaren kanpio-  
natuak, Espainiako telebistan  
"Campeonatos de Pelota" bezala  
agertzea. Bertako arduradun batek  
zioenez, kirolarik espainolena (!).

— Ez da kasualitatez gertatzen, edo-  
zein aitzakiz Kubalak futbolari  
euskaldunak Espainiako selekzio-  
tik baztertzea (Ene ustez, hobe  
dateke horrela, ohitura hartuz joa-  
teko eta talde nazionalak eratzean  
deskalabro handirik eduki ez  
dezan).

— Ez da kasualitatez gertatzen,...

Ez jaunok! Kirol kontuetan ere, ez da  
ezer —edo oso gutti behintzat— kasuali-  
tatez gertatzen. Eta nahi baduzue, zeuek  
ere horrelako adibide asko aurkituko  
dituzue. Eta zoritxarrez, hauetan guz-  
titan motibazio ber bat ageri da: eus-  
kaldun izatea. Noski, euskaldunen kon-  
tra egiteko, zilegi dateke kirola eta poli-  
tika nahastea.

Gu kanta horrekin geratzen gara:  
"Euskaldun izatea pekatua bada, ...".

J. R. Bilbao



## AZKENEAN



Behin baino gehiagotan aipatu ukan dugu lerro hauetatik, euskararen gramatika euskal zentzuz eta euskaraz idatziz egiteko premia. Hutsune larri hori betetzea, beharrezko dugu euskara ikasten, irakasten eta lantzen ari garenok. Eta, oraintsu arte, ba zirudien inork ez zuela horrelako egitekorik bete nahi.

Bat batean, hala ere, hor inguruan dibarduten lau liburu plaza-ratu zaizkigu. Ez dut uste, guztiok batera agertzeak ere kalterik egingo digunik, baina harrigarria da euskaldunon burugogorkeria eta koordinazio falta, zeren historio hau behin eta berriro errepikatzen baita: Hitzegirik ez dagoela? Lasai egon, bizpabiru agertuko dira batera. Euskarra irakasteko metodo egokirik ez dagoela? Tori! lauzpabost metodo berri batera. Eta abar eta abar. Edozein modutan, hau anekdota gisa baino ez dut kontatzen, eginiko lan guztiak aipagarriak eta eskergarriak baitira.

Lerro hauen bidez, liburu horietako baten aipamen berezia egin nahi dut, benetan oso baliagarri delakon bainago: "Gramatika bideetan" izenarekin Patxi Goenagak prestatu duenarena hain zuzen ere. Bertan dagoen ordenagatik, sa-

kontasunagatik eta benetan euskal senaz eginiko gramatika bat delako, oso interesgarritzat jotzen dut. Ene ustez, Patxi pauso kualitatibokantitatean ere ezda atzean geratubandia eman du, bere lana maila horretan jartzean. Gauza asko egiteko dagoela? Noski! Baina lan horretan bidea ibiltzeko modua azaldu zaigu.

Eta frogatu behar zèn gauza ez bada ere, argi eta garbi frogaturik geratu da: Bai jaunok! Gramatika

## GRAMATIKA ERE EUSKARAZ



ere euskaraz. Eskerrak, Patxi.

## ZER EGIN / ZEREGIN

Nola idatzi behar da, banandurik ala loturik? Behin baino gehiagotan zabalantza hori sortzen zaigu, eta berdin antzera gertatzen zaigu beste hitz batzurekin ere: zeresan, zerikusite eta besterekin.

Izatez, idazkera biak dira zitelegi, baina zein bere kasuan. Horrek zeresan esan nahi du, loturik eta banandurik bi gauza desberdin direla,

eta idaztean, idazleek bietariko zein erabili nahi duten jakin behar dutela.

Has gaitezen forma banandua aipatzen. Kasu honetan, ZER delakoa galdetzaile butsa da, hots zerbait galdetzeko erabiltzen da, galdera zuzen edo zeharkakoetan. Adibidez:

Zer egin du horrek?

Zer esan duen jakin nahi

dut

Zer ikusi duzu kalean?

Era banandu honetan, EGIN, ESAN eta IKUSI aditzak dira, eta jokatu egiten dira.

Ikus dezagun orain forma lotua. Oraingo honetan hitz konposatu baten aurrean aurkitzen gara. Eta ZER delakoa galdetzailea izan bada eta EGIN delakoa aditza, biak batuz sortzen den ZEREGIN delakoa izen arrunta da. Eta deklinazio-atzizkiak onartzen ditu. Adibidez:

Zein da zure zeregina?

Autobusa segurki eroatea da gidariaren zeregina.

Hor honpon zeure zereginekin.

Horiek beti darabilte zeresan franko.

Zer du horrek zerikusirik?

Beraz, arau simplea dugu banandurik ala loturik idatzi behar dugun jakiteko. ZER EGIN multzoak atzizkirik onartzen badu, loturik idatzi behar da; bestela, hots, aditz gisa jokatzen bada, banandurik.

## TXOZNA ALA TXOSNA?

Azken bolada honetan, jaialdien giroa alaitzeko eztarriak freskatzeko eta zergatik ez esan-diru pixkat ateratzeko, taberna erako txabola batzu eratzen dira herri gebienetan. Bilbo inguruetan, behintzat, TXOZNA izenez ezagutzen dira (TX eta Z batez idatziz).

Nik neuk ez dakit zergatik erabiltzen den ortografia hori. Baina hitz euskaldun hau -S- batez idatzirik ageri da Azkueren hiztegian. Ez duzue uste, ortografia hori erabiltzea hobe denik? Ohitura zuzena bultzatzeko une egokia da. Beraz, euskal ortografiatzat idaztean behintzat, TXOSNA idatz dezagun.

J. R. Etxebarria

# JAKIN

## EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiru hilabetez behin ateratzen da

Monografiak  
Dossierrak  
Azterketak  
Kritikak  
Gaurko gaiak

Oraingo zenbakiaren gai nagusiak:

Abertzaletasuna eta Hizkuntza  
KATALUNIAN

Irakaskuntza elebiduna  
EUSKAL HERRIAN

Udalak eta Autonomia

Euskadiko Komunikabideak

Oraingo zenbakiaren lankideak:

Agirretxe, J.A.  
Arana Martija, J.A.  
Azurmendi, J.  
Etxezarreta, E.  
Intxausti, J.  
Lasa, M.  
Navarro, K.  
Pagola, M.  
Xarriton, P.  
Zalakain, J.M.

JAKIN  
800 pta. urtean. 250 alea.

Eskabideak eta harpidetza:  
Cuartel, 2- TOLOSA (GIPUZKOA)

Tfno: (943) 65.11.06

## ESAERA ZAHARRAK

BURUTIK HASTEN DA ARRAINA KIRASTEN. Gizar-  
te, alderdi, elkarte edo talde batetan gauzak ondo ez doa-  
zenezan, bertako buruak eta nagusiak ustelenak eta oke-  
rrenak izaten direla beti esan nahi du. Itsasuntzietako  
kapitainez hor zehar esaten dena ez dela egia halebegia.

Beronen exenpluak nahi adina aurki ditzake irakurle  
zuhurak.

## SUKALDERAKO SALTSAK



### OILASKOA ZIAPE SALTSAN

6 lagunentzat ondokoak beharko dituzu: Oilasko pare  
bat. Tipula bat t'erdi, 50 gr. gurin (1), 100 gr. margarina,  
gorringo bat, ziape (2) goilarakada handi bat. Baso bat ardo  
zuri. Irin pixkat, gatza eta biper hautsa.

Lapiko batetan edo labean oilaskoak doratuko dituzu,  
dakizun modura. Bitartean saltsa eginen duzu.

Hona hemen egiteko modua: Sartagin batetan tipula  
zatiak gurinarekin doratuko dituzu. Bota sartaginerako goila-  
rakada handi bat irin. Nahas ezazu ongi. Doratu direnerako  
ardoa eta beste haionbeste ura botako duzu. Utz ezazu iraki-  
ten guztia bost minutuz edo.

Sutatik kanpoan eta bizkor eraginik saltsari goilarakada  
handi bat ziape, 100 gr. margarina, zatika, zatika eta gorringo  
bat botako dizkiozu. Ziapea, Dijoneakoa izan behar da.  
Besteak ez du balio. Ez utz eragiten! Azkenez gatza eta biper  
hautsa. Oilaskoak ongi doraturik daudenean saltsa guztia  
gainera bota eta zerbitza itzazu.

On egin.

(1) mantequilla, beurre.


(2) moutarde, mostaza.

## KRITIKAZ ETA DESKRITIKAZ AISE ARI

*Nire aburuz, kasu horretan bakarrik, h. d., horrela jokatzu gero bakarrik egiten da kritika literaria, denbora luze eta lanordu asko eskatzen duen betebeharraren dena, aldizkari batetarako, eman dagigun, sartu ohi ez den denbora. Horregatik agertzen diren literaturiruzkinak horixe besterik ez dira, iruzkin, irakurle horrengan testuak sortu duen inpresioen deskribaketa, eta beronek eragin ditza-*

*“L'artiste n'est pas celui qui crée: c'est celui qui sent” (ez da artista sortzen duena, senditzen duena baizik) zioen Malraux-ek lagun txinar baten ahoaz bere “La tentation de l'Occident”en.*

*Asko dabil esaka beren taifak defendatuz batzu eta besteren kontra, hau isiltzen eta hura gordetzen; askatasunean sinesten dugulako, baina, idazteko*



*L'Artiste n'est pas celui qui crée, c'est celui qui sent.*

*keen gomendioen zerrenda. Izan behar duena, hain zuzen ere. Eta baldintza horietan hortik gora joan nahi dena, hantusteria hutsa, nahiz eta egia den ezin daitekeela uka, ohiturez, halako zertasun bat lor daitekeenik literaturobrez berba egiteko, baina era berean ezin daitekeela ahantz kasu horretan ere lehengo erizpideak, gustuak, beti bat dirauenik, anaia gehiena, alegia.*

*eskubidea dugula esanen diegu, utz gaitzatela bakez, ez daitezela ardura, guk geure bidea eginen baitugu, horixe besterik ez baitugu nahi, geure sendimenduak adierazi, geure arantzak eta deabruak, beldur eta lotsariak erakutsi, berdin digutelako leporatzen dizkiguten titulu guztiak gu geu izanik bakarrik, eta oroz gainetik ez dezatela sekula ahantz atzeak beti erakusten duela aurreak nola duen dantzatzen.*



Anaitasunako zuzendaria jauna,

Zorion beroak zuen epe berri horretan, ea egia bihurtzen den independentzia hori. Nire aldetik ezin diezaizueket dirurik eman, niretzat ere ez baitut. Hala ere, edozein gauzatarako prest nago zuei laguntzea, suskizioak egiteko edo horrelako batetarako. Anaitasuna salbatu behar dela uste dut. Besterik ez zuen zai,

E. Zubietta

Anaitasunari,

Mesedez, fabore bat eskatuko nizueke, hara hemen nire oharra. Oso gutti irakurtzen da zuen aldizkaria Iparraldean, eta maiz ez dut bera aurkitzen Baionako edo inguruko saltokietan, euskal-liburudendetan erran nahi dut. Ez duzue izan ahal inor hemen hortaz arduratzen denik?

Beste puntu bat uki nahi nuen. Oso erreportai gutti eta bitxi diren albiste edo komentarioak argitaratzen dituzue, gehiena, literatura eta politika edo antzekoa da. Zergatik ez zarete saiatzen beste modu batez?. Horrek behar du enetzat euskal prentsak, ez hain beste elemele politikoa.

J. Irissarry

ANAITASUNAKO ERANTZUNA.

Lagun, Anaitasunari mesede handia eginen zenioke gure aldizkarian harpidetza bat hartuko bazenu. Kioskotan aldizkaria erostek ez du berdina ematen. Egia duzu bestaldez, Baionara edo Iparraldera oso gutti heltzen da gure aldizkari hau, baina ez zaitez gehiegi harri zeren Bilbon berdina, —beste portzentaitan— gertatzen baita. Oso azpiegitura eskasa dugu, medio gutti eta gizarte honetan erdarak eta diruak agintzen du.

Arrazoia ba duzu ere, gure aldizkari hau erroilu pixkat dela dioskuzunean, baina bestelako egiteko orain ez daukagun medioak eduki beharko genituzke, beraz, ez da guri bota diezaiguketen falta. Hemen ere diruak agintzen du. Hau guzti honetaz konturatzen bazara, zurekin guztiz ados gaudete. ANAITASUNA

Agur Anaitasunako lagun onak,

Irakurria dugu azken alcan zuen egoera ekonomikoa nola den eta ez bada zihur nire ohartxo hau argitaratuko den ala ez jakitea, hemendik. Oslotik oso pozgarria da, atzerapenez baina, zuen aldizkari hori irakurtzea. Aurrera segi mutilok edo neskak. Ez da lagungarria hori eta ez besterik esatea eta egitea, horregatik nire posibilitadetan 10.000 pzt. bidaltzen dizkizuet, nahiz eta gutti izan lagunduko ote zaitzuten esperoan.

Anaitasuna desagertuko balitz, Euskal-Prentsaren historia luze eta etorkizun fruitugarri bat desagertuko litzateke berarekin.

Besterik gabe, eskerrak zuci:

A. Martinez M.

Drammen (Noruega)

Anaitasunako zuzendaria,

Ba dirudi PSOE dena euskalduntzen' ari zaigula, batez ere Mugica diputaduen hitz askotaz pentsatzean.

Mundu guztiak daki bere "El Pueblo Vasco dirá si a la Constitucion por aplastante mayoria". "Los que trabajan y viven en Euzkadi son vascos" eta ab.

Ba nik dudatan ipintzen dut guzti hori, eta ez nik, interesadunak baizik.

Hara hemen, lehengo egunean nire hauzotarren artean galdera batzu egin nizkien emigrante askori.

-Oye tu eres vasco?

-Yo vasco, yo soy Extremeño, de la provincia de Badajoz.

-Y no te sientes vasco?

Yo me siento lo que soy, y no tengo nada contra los vascos, al contrario.

-Pero es que dice el PSOE que todos los que aqui vienen a trabajar son vascos y...

-Pues mira que creia que el PSOE no era de esos, que andan todo el dia por ahi con esa monserga. A nosotros que nos dejen en paz, que lo que uno no puede hacer es renegar de su tierra.

Eta horrela, modu berean galdezka egon naiz asko eta ezin topa Mujikaren euskaldun horik.

Nik beti pentsatu dut PSOE espainolista zela, orain aldiz, ez dakit zer pentsa, euskal inperialista izango ote da? eta beste gauza bat EUSKALDUNOK baitezta konstituzioari esango diogula esan al daiteke?

Mesez, argitu beharrean nago, norbaiti zer edo zer burutzen ba zaio niri arazo hau konpotzeko gai dena, idatz dezala Anaitasunean. Mila esker.

T.M.

D.N.I.14.231.600

Kaxo

Anaitasunako adiskideak,

Aspalditik nuen idazteko asmoa, baina orain arte asmoetan gelditu da. Lehendabizi, eskerrak ematen dizuet Anaitasuna hona bidaltzeagatik, eta nola azaroan berriz nire Herrira joango naizen, mesedez hara bidaltzeko eskatzen dizuet.

Gero, arazotxo bat dut, eta ez dakit zuek laguntzea edukiko duzuen: Genevan ba dago euskaldun multzotxo bat, euskara ez jakinez ikasten ari direnak, aurtan ni izan naiz irakaslea, baina nire joanekin irakaslerik gabe gelditzen dira (bi urte darmatzate euskalduntzen) eta nik eskatzen dizute hau da: ezagutuko bazenukete norbait hona datorrena, edo hemen dagoena eta euskarazko ikastaroak emateko prest dagoena, jende honekin hitzegiteko esatea; gauza nahiko zaila da, baina nork daki? Gure medioak oso porbreak izan edo dira, baina batzu ia pixkat hitzeginen hasi dira eta besteak bidean doaz, horregatik penagarria izan litzateke ahal izanda, horrela gelditzea.


Aurrez eskerrak ematen dizkizuet egin dezakezuenagatik, eta hurrengorarte:

Guurtz

Kontaktuan jartzeko hona jo:  
Libreria Via Spania  
Rue Lausane  
GENEVE (C.H.)  
Tfno: 311611



# GURUTZEGRAMA




## 16. ZENBAKIA

### LUZETARA

1. Katalandar kantari (izen osoa; 2 hitz).
7. Amerikako sexologo.
10. Gallio (symbolo kimiko).
11. Desertuko leku berde.
13. Musulmanen hilabete sakratua.
15. .... Maria, edari bat.
16. Txakurra.
17. Oriente.
20. Mintzaira ezformal eta koloredun.
21. Kandelabroa.
25. Hilargia lurraren itzalean dagoenean, hau dugu.
27. Egiptiar jainkosa.
28. Dardartu.
31. .... Bien Phy, Vietnam-eko gudu hospatsua (1954).
35. Aintzinako Euskal Herria.
37. Bizkaia ta Gipuzkoa bai, Lapurdi ta Nafarroa ez.
38. Ezer ez (bizkaieraz).
40. Filosofo marxista.
44. M ala PM.
45. Tente, bertikal.
46. Gatz gabe.
47. Asia-ko herri handiena (bizilagunez).
49. Gizonezko.
50. Agustín ....., Aitor-mytharen sortzailea.
51. Basaburuko herri nagusia.

## 15.



## GOITIK BEHERA

1. Lehen euskal hiztegi ta gramatikaren egilea.
2. Iragan (bizkaieraz).
3. Egiptiar lehendakaria.
4. Animalia ez den biziduna.
5. .... d'luore, Afrikan.
6. Mikel Laboaren kanta bat (2 hitz).
7. Bigarren pertsonako izenorde.
8. Soinurik gabeko.
9. Suaz deuseztatu.
12. Sarraskia jaten duen txori, putre.
14. Peru Abarka-ren egilea.
18. 'Aurka' adierazten duen aurrizki.
19. Salvador ....., pintatzailea.
21. Nahi duguna.
22. Sasoi.
23. Da (ingelesaz).
24. Simon Bolivar edo Toussaint l'Ouverture, adibidez.
26. 3,1416.
29. Zientzi edo kultur erakunde.
30. .... supra (gorago esan bezala, latinez).
32. Andetar indiar.
33. Eta (italieraz).
34. Hic et .... (hemen eta orain, latinez).
36. Himalaietako herri.
38. Herrialde behean bizi den.
39. Irten.
40. Karl edo Groucho.
41. Philip ....., Amerikako nobelista (*Portnoy-en Kexa* egin duena).
42. Israeliar metraileta.
43. "L'....., c'est moi".
48. Ixilik!

Larry Trask



## IGARKIZUNA

Etzanda dago; jaikiko balitz, zerau jokatu luke. Ez daki hizketan; baleki, gauza guztiak esan go lituzke.



**ASPACE** EL BARRITASUN ZEREBRALAREN ELKARTEA

ASPACEk (Elbarritasun Zerebralaren Elkarteak) publizitate bitxia egin berri du: Forges-en irudi bidezkoa, hulegia. Originaltasuna ordea, ez da hor amaitzen, testuak, erdaraz gainera, euskaraz ere jartzean baizik. Gero eta gehiago dira, eta horrek benetan pozten gaitu, beren zabalkundea geure hizkuntzaz jartzen dutenak. Kurioski, gehienak kanpoko firmak direla esango nuke. Etxekoak euskararen erakartasun balioaz konturatzen ez garen artean, arrotzek guk baino zentzu hobea agertzen dute hor. Ikas dezagun.

ASPACEri, dena den, gure alde honetako zilarrezko krabelin usaintsua bidaltzen diogu hemendik.

## ZILARREZKO KRABELINA



Bidea

Erantzuna



## *Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.*


Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko projekzio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitzen. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongiegi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

*geroa hementxe dago.*

# Gipuzkoa besterik ez dugu gogoan hargatik Probintzial da gure izena.



Gure probintziaren aurrerabidean gero eta lankide sutsuagoak izateko prest gaituzu: bai nekazaritzan, bai industrian, bai merkatalgoan, bai komunikabideetan,... edozein alorretan. Gipuzkoan bizi maila goratzeko bidea gerta litekeen guztian. Probintzial izena daramagu eta gipuzkoar aurrerabidearen alde ari gara ahaleginetan beti ere.



**GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA**